

# Proiektu Zuzendaritza Lexikoa



# Proiektu Zuzendaritza Lexikoa

2019-12-17

[uzei.eus/proiektuzuzendaritza](https://uzei.eus/proiektuzuzendaritza)



## Aurkibidea

Sarrera.....	4
Eremu-zuhaitza .....	8
Euskara – erdarak .....	9
01. Termino orokorrak .....	10
02. Proiektu-zuzendaria .....	17
03. Proiektuaren integrazioa .....	18
04. Irismena.....	23
05. Kostua.....	28
06. Kalitatea.....	32
07. Kronograma .....	36
08. Komunikazioak .....	44
09. Hornitzeak .....	46
10. Alderdi inplikatuak.....	50
11. Baliabideak.....	52
12. Arriskuak.....	55
Euskarazko aurkibidea .....	60
Gaztelaniazko aurkibidea .....	66
Frantsesezko aurkibidea.....	73
Ingelesezko aurkibidea.....	79
Erreferentzia bibliografikoak.....	86

# SARRERA

## 1. LEXIKOAREN MOTIBAZIOA

---

Etengabeko aldaketak dituen testuinguruan bizi dira gaur egungo enpresak eta erakundeak, eta, arrazoi horrengatik, eraginkortasunez moldatzeko gai izan behar dute lehiakortasuna ez galtzeko. Horren ondorioz, proiektuen zuzendaritza eta kudeaketaren arloa asko indartu da azken urteotan industrian eta zerbitzuetako sektorean, proiektuak aurrera eramateko ekintza guztiak planifikatu, antolatu, optimizatu eta kontrolatu beharra dagoenez. Eta horixe da, hain justu, proiektu-zuzendaritzaren esparruak duen xedea.

Euskal unibertsitateek aspaldi eman zioten merezi adinako garrantzia arlo horri, eta, hainbat titulaziotan *Proiektu Zuzendaritza* ikasgaia irakasteaz aparte, master propioak ere garatu dituzte.

Hala ere, erakunde, enpresa eta unibertsitateek ez dute terminologia bateratu bat ezarri; bakoitzak bere terminologia propioa proposatu eta erabili izan du. Eta egoera horrek, jakina, proiektu-zuzendaritza erabiltzen duten eragileen artean komunikazio-gabeziak eragin izan ditu, bai eta euskara erabili beharrean ingelesezko terminoetara jotzeko joera ere.

## 2. LEXIKOAREN HELBURUA

---

Proiektu Zuzendaritza lexikoaren helburua, beraz, arlo horretan diharduten eragileek beren jardunean beharrezkoa duten oinarrizko euskarazko lexiko espezializatua adostea eta euskarazko terminologia bateratu bat sustatzea da.

Lexikoak erabiltzaileen artean bere bidea egiten badu, proiektu-zuzendaritzan aritzen diren eragile eta profesionalek tresna baliagarria izango dute euskara elkarren artean modu koherentean erabiltzeko, eta arlo horretan espezializatuko diren ikasleek ere etorkizuneko lanean euskara ere berme osoz aritzeko baliabide praktikoa izango dute.

### 3. PROIEKTUKO ERAKUNDE SUSTATZAILEAK

---

#### **UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa**

UZEIk lexiko orokor eta espezializatua lantzea du helburu sorreratik bertatik. Hiztegi-gintza da, beraz, bere jardueraren ildo nagusia.

UZEIko Terminologia Sailak landu du *Proiektu Zuzendaritza* lexikoa, terminologiagintzan duen esperientzia baliatuz. Ondoren aipatuko diren erakunde eta unibertsitateetako adituen ekarpenak bildu ditu bere proposamen lexikoan, esparruko adostasuna bermatze aldera.

#### **Euskal Herriko Unibertsitatea**

EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolak 90 kredituko *Proiektu Zuzendaritza* master ofiziala du 2006tik, eta dagoeneko 300 ikasle baino gehiago trebatu ditu esparru honetan.

#### **Mondragon Unibertsitatea**

Unibertsitate honetako Mondragon Goi Eskola Politeknikoak 60 kredituko *Enpresa berrikuntza eta proiektu-zuzendaritza* masterra eskaintzen du.

#### **PMI Euskadi branch**

Project Management Institute (PMI) ezagutza eta gaitasuna bermatzen dituen ziurtagiriak eskaintzen ditu. Mundu osoan 370.000 profesionalak baino gehiagok dute Proiektu Zuzendaritzako Profesionala (Project Manager Professional - PMP®) ziurtagiria.

PMIren estandarrak dira mundu osoan zehar Proiektu Zuzendaritzaren esparruan onarpen handiena dutenak, eta horiek denak PMBOK (*Project Management Body of Knowledge*) liburuan biltzen dira.

#### **AEIPRO**

Proiektuen zuzendaritzaren eta ingeniartzaren arloko profesionalak biltzen dituen Espainiako elkarte.

#### 4. ADITUEN LANTALDEA

---

- Ibon Ayo**      Ingeniaria, Proiektu Zuzendaritzan aditua. PMP ®
- Javier Guallar**      Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa. PMP ®
- Joserra Otegi**      EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskola. Proiektu Zuzendaritzaren arloko koordinatzailea
- Sergio Santos**      Project Management Institute (PMI)

#### 5. METODOLOGIA, BALIABIDEAK ETA IRIZPIDEAK

---

Metodologiaren arloan, lan terminologikoen sistematizazio bat behar dute, arlo jakin bateko lexikoa lantzen diren kasuetan. UZEIk bere urte luzeetako esperientzian finkatutako barne-prozedurak eta kalitate-estandarrak erabili ditu lexiko honetan.

Hiztegigintzarako eta terminologia-lanetan erabiltzeko dituen ohiko aplikazio eta baliabideak erabili ditu, aipatutako estandar horiek betez jarduteko. Baliabide eta tresna horiek aplikatzen dituzten irizpide linguistikoen oinarrian daude euskararen hizkuntza-agintaritzek ezarritako arau, gomendio eta hobespenak.

Azken batean, ideia bat da nagusi, betiere, horrelako xedea duten terminologia-lanetan: proposamen lexiko-terminologikoa koherentea izango da euskararen estandarizazio- eta normalizazio-prozesuetan finkatu denarekin. Kanpo-koherentzia hori bermatzea funtsezko elementua da zeregin honetan.

Kanpo-koherentzia hori indartzearekin bat, esparru konkretu honetako proposamen lexiko-terminologikoaren barneko koherentzia bermatzea izan da beste irizpide bat, kalitate-ikur gisa eta normalizazio-bidean funtsezko betebeharra denez. Eragileen arteko inplikazioa garrantzizkoa izango da koherentzia hori finkatzeko eta gero gizarteratzeko eta erabilera sustatzeko.

## 6. LAN-PROZEDURA

---

Lan terminologikoetan ohikoak diren urratsak egin dira lexiko hau lantzean ere: aditu-taldea antolatzea, corpora finkatzea, eremu-zuhaitza zehaztea, terminoen erauzketa, lexikoa terminologikoki lantzea, eta terminoak adostea.

Azken urrats honetan, unibertsitateetako adituek parte hartu izana garrantzi bereziko da. Izan ere, hezkuntza-sistemak eratzen du normalizazio eta erabileraren zikloari indarra emateko oinarririk sendoena: adituen erabilera adostu batetik abiatuz, konbergentzia indartu (euskara bezalako hizkuntza batentzat oso garrantzitsua), erabilera sustatu, hezkuntza-sisteman irakatsi eta ondorioz ikasi, eta ikasle horiek etorkizunean erabili.

## 7. LEXIKOAREN EZAUGARRIAK

---

*Proiektu Zuzendaritza Lexikoa* **lexiko eleaniztuna** da, lau hizkuntza biltzen ditu: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa. Euskarazko terminoa bilatzeko edo bertara heltzeko bidean, erabiltzaileari edozein hizkuntzatik iristeko aukerak eskaintzea da biderik praktikoa eta eraginkorra. Eta hizkuntza horien artean dago, noski, ingelesa; nazioarteko teknika-hizkuntza hedatuena izateaz gain, *project management*aren arloan oinarrizko kontzeptuak eta terminologia finkatu dituen hizkuntza nagusia da.

Horrela, kontzeptu jakin batek euskara ez den hizkuntza batean zer ordain duen jakinez gero (hizkuntza hori lexikoko edozein dela ere), erabiltzaileak ordain horren bidez euskarazko terminora iristeko sarbide erraza izango du.

Lexikoan **457 kontzeptu** jasotzen dira guztira, bakoitza bere definizioaz hornitua eta eremu-zuhaitzaren arabera sailkatua.

## **EREMU-ZUHAITZA**

1. Termino orokorrak
2. Proiektu-zuzendaria
3. Proiektuaren integrazioa
4. Irismena
5. Kostua
6. Kalitatea
7. Kronograma
8. Komunikazioak
9. Hornitzeak
10. Alderdi inplikatuak
11. Baliabideak
12. Arriskuak



## 1. TERMINO OROKORRAK

1

### **adituen epai**

Lantzen ari den jarduerari dagokion jakintzarlo edo diziplina batean ezagutza bereziak dituen pertsona edo talde batek bere esperientzian oinarrituta ematen duen epaia.

**es** juicio de expertos  
**fr** jugement a dire d'expert  
**en** expert judgment

2

### **aldaketa**

Entregagai bat, proiektu-zuzendaritzako planaren osagai bat edo proiektuko dokumentu bat aldatzea.

**es** cambio  
**fr** changement  
**en** change

3

### **antolaketa funtzional**

Antolaketa-egitura mota; langileak espezializazio-adarren arabera taldekatzen dira, eta proiektu-zuzendariak autoritate mugatua du lana esleitzeko eta baliabideak aplikatzeko.

**es** organización funcional  
**fr** organisation fonctionnelle  
**en** functional organization

4

### **antolaketa matrizial**

Antolaketa-egitura mota; proiektu-zuzendariak kudeatzaile funtzionalekin partekatzen du erantzukizuna, lehentasunak esleitzeko eta proiektuari esleitutako pertsonen lana zuzentzeko.

**es** organización matricial  
**fr** organisation matricielle  
**en** matrix organization

5

### **antolaketa-ikaskuntza**

Banakoek, taldeek eta erakundeek ezagutza garatzeko duten modua aztertzen duen diziplina.

**es** aprendizaje organizacional  
**fr** apprentissage organisationnel  
**en** organizational learning

6

### **antolaketakoko prozesu-aktiboak**

Antolaketakoko erabiltzen diren planak, prozesuak, politikak, prozedurak eta ezagutza-oinarriak.

**es** activos de los procesos de la organización  
**fr** actifs organisationnels  
**en** organizational process assets

7

### **ataza**

Proiektu baten barruan egindako lanaren zati zehatz eta konkretua, definitua eta planifikatua.

**es** tarea  
**fr** tâche  
**en** task

8

### **autoritate**

Proiektuan baliabideak esleitzeko, funtsak gastatzeko edo erabakiak hartzeko eskubidea.

**es** autoridad  
**fr** autorité  
**en** authority

9

### **babesle**

Proiektu, programa edo proiektu-zorrorako baliabideak eta laguntza ematen dituen pertsona edo taldea.

**es** patrocinador  
**fr** sponsor  
**en** sponsor

10

### **birlana**

Akastuna den edo adostasunik ez duen osagai batek eskakizun edo zehaztapen egokiak bete ditzan lortzeko egindako ekintza.

**es** retrabajo  
**fr** reprise  
**en** rework

11

### **bizitza-ziklo inkremental**

Proiektuaren bizitza-ziklo mota: entregagaia hainbat iterazioen bidez egiten da, iterazio bakoitzak funtzionaltasunak gehitzen dizkio hurrenez hurren entregagaiari denbora-esparru baten barruan, eta soilik azken iterazioaren ondoren joko da osatutzat entregagaia.

**es** ciclo de vida incremental

**fr** cycle de vie incrémentiel

**en** incremental life cycle

12

### **bizitza-ziklo iteratibo**

Proiektuaren bizitza-ziklo mota: proiektuaren irismena bizitza-zikloaren hasieran zehazten da, baina denbora- eta kostu-zenbatespenak aldizka aldatzen dira, proiektu-taldeak produktua hobeto ulertu ahala. Iterazioek ziklo errepikatuen bidez garatzen dute produktua; gehikuntzek, berriz, funtzionaltasuna gehitzen diote produktuari.

**es** ciclo de vida iterativo

**fr** cycle de vie itératif

**en** iterative life cycle

13

### **bizitza-ziklo prediktibo**

Proiektuaren bizitza-ziklo mota: proiektuaren irismena, denbora eta kostua bizitza-zikloaren hasieran zehazten dira.

**es** ciclo de vida predictivo

**fr** cycle de vie prédictif

**en** predictive life cycle

14

### **datu-analisiko teknikak**

Datuak eta informazioa antolatzeke, aztertzeke eta ebaluatzeke teknikak.

**es** técnicas de análisis de datos

**fr** techniques d'analyse des données

**en** data analysis techniques

15

### **datuak**

Neurketa- edo behaketa-emaiza gordinak, gero antolatu edo prozesatuko direnak.

**es** datos

**fr** données

**en** data

16

### **datuak biltzeko teknikak**

Hainbat iturritatik datuak eta informazioa biltzeko teknikak.

**es** técnicas de recopilación de datos

**fr** techniques de collecte des données

**en** data gathering techniques

17

### **egokitzapen**

Proiektu bat zuzentzeko beharrezkoak diren prozesuen, sarreren, tresnen, tekniken, irteeren eta bizitza-zikloko faseen konbinazio egokia zehaztea.

**es** adaptación

**fr** adaptation

**en** tailoring

18

### **egokitzapenezko bizitza-ziklo**

Iteratiboa edo inkrementala den bizitza-zikloa.

**es** ciclo de vida adaptativo

**fr** cycle de vie adaptatif

**en** adaptive life cycle

19

### **enpresaren ingurune-faktoreak**

Taldearen kontrolpe zuzenean ez dauden baldintzak, nolabaiteko eraginak edo mugak sor ditzaketenak proiektuan, programan edo proiektu-zorroan.

**es** factores ambientales de la empresa

**fr** facteurs environnementaux de l'organisation

**en** enterprise environmental factors

20

### **entregagai**

Prozesu, fase edo proiektu bat osatzeko sortu behar den produktu, emaitza, gaitasun edo zerbitzu bakar eta egiaztagarria.

**es** entregable

**fr** livrable

**en** deliverable

21

### **erabakiak hartzeko teknikak**

Alternatiba edo aukera askoren artean ekintza-bide bat hautatzeko teknikak.

**es** técnicas para la toma de decisiones

**fr** techniques de prise de décision

**en** decision-making techniques

22

### **erakunde babesle**

Proiektuaren babeslea emateaz eta hura finantzatzeko bitartekoak lortzeaz arduratzen den erakundea.

**es** organización patrocinadora

**fr** organisation sponsor

**en** sponsoring organization

23

### **erregistro**

Prozesu edo jarduera bat gauzatzean identifikatu eta hautatutako elementuak erregistratzeko eta deskribatzeko erabiltzen den dokumentua.

**es** registro  
**fr** journal  
**en** log

24

### **erregulazio**

Gobernuko erakunde batek ezarritako baldintzak. Baldintza horiek produktuaren, prozesuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak ezar ditzakete, eta nahitaez bete beharrekoak dira.

**es** regulación  
**fr** réglementations  
**en** regulations

25

### **estandar**

Autoritate batek, ohiturak edo adostasunak eredu gisa ezarritako dokumentua.

**es** estándar  
**fr** standard  
**en** standard

26

### **ezagutza**

Pertsonak esperientzia eta informazio berriei zentzua emateko erabiltzen dituen esperientzien, balio eta sinesmenen, testuinguru-informazioaren, intuizioen eta pertzepzioen multzoa.

**es** conocimiento  
**fr** connaissances  
**en** knowledge

27

### **gauzatu**

Proiektuaren lana zuzendu, kudeatu, bideratu eta egin, entregagaiak eman eta lanaren performantziari buruzko informazioa eman.

**es** ejecutar  
**fr** exécuter  
**en** execute

28

### **gauzatze-prozesuen talde**

Proiektu-zuzendaritzako planean zehaztutako lana osatzeko egindako prozesuen multzoa, helburua izanik proiektuaren eskakizunak betetzea.

**es** grupo de procesos de ejecución  
**fr** groupe de processus d'exécution  
**en** executing process group

29

### **gertakari**

Proiektuaren helburuetan eragina izan dezakeen uneko baldintza edo egoera.

**es** incidente  
**fr** point à traiter  
**en** issue

30

### **gertakarien erregistro**

Gertakariei buruzko informazioa erregistratzen eta monitorizatzen den proiektu-dokumentua.

**es** registro de incidentes  
**fr** journal des points à traiter  
**en** issue log

31

### **gradu**

Erabilera funtzional bera izanik kalitate-baldintza berak ez dituzten elementuak bereizteko kategoria edo maila.

**es** grado  
**fr** classe  
**en** grade

32

### **hasiera-prozesuen talde**

Proiektu berri bat edo lehendik dagoen proiektu baten fase berri bat hasteko baimena lortu ondoren proiektu edo fase berri hori definitzeko egiten diren prozesuen multzoa.

**es** grupo de procesos de inicio  
**fr** groupe de processus d'initialisation  
**en** initiating process group

33

### **helburu**

Lanaren norabidea finkatzen duen helmuga: lortu nahi den posizio estrategikoa, lortu nahi den helburua, lortu beharreko emaitza, ekoitzi beharreko produktua edo eman beharreko zerbitzua.

**es** objetivo  
**fr** objectif  
**en** objective

34

### **informazio**

Datu antolatuen edo egituratuen multzoa, helburu zehatz bat lortzeko prozesatzen dena testuinguru jakin batzuetan esanguratsua, baliotsua eta erabilgarria izan dadin.

**es** información  
**fr** informations  
**en** information

35

#### **informazioaren kudeaketa-sistema**

Informazioa sortzen eta kontsumitzen dutenen artean informazio hori biltzeko, biltegitratzeko eta banatzeko erabiltzen diren instalazioak, prozesuak eta prozedurak.

**es** sistemas de gestión de la información

**fr** systèmes de gestion de l'information

**en** information management systems

36

#### **irizpideak**

Erabaki baten oinarri izan daitezkeen estandarrak, arauak edo probak; haien bitartez, produktu, zerbitzu, emaitza edo prozesuak ebalua daitezke.

**es** criterios

**fr** critères

**en** criteria

37

#### **irteera**

Prozesu batek sortutako produktu, emaitza edo zerbitzua. Ondorengo prozesu baten hasierako datua izan daiteke.

**es** salida

**fr** donnée de sortie

**en** output

38

#### **itxiera-prozesuen talde**

Proiektu, fase edo kontratu bat osatzeko edo formalki ixteko prozesuen multzoa.

**es** grupo de procesos de cierre

**fr** groupe de processus de clôture

**en** closing process group

39

#### **jarduera**

Proiektu baten barruan egin behar den lanaren zati definitua eta planifikatua.

**es** actividad

**fr** activité

**en** activity

40

#### **jarduerak definitu**

Proiektuaren entregagaiak lantzeko egin behar diren ekintza espezifikoak zehaztu eta dokumentatu.

**es** definir las actividades

**fr** définir les activités

**en** define activities

41

#### **jardueraren atributuak**

Kronogramako jarduera bakoitzarekin erlazionaturiko ezaugarriak, jarduera-zerrendan sar daitezkeenak, hala nola jardueraren kodeak, aurreko eta ondorengo jarduerak, erlazio logikoak, ezarritako datak, eta abar.

**es** atributos de la actividad

**fr** attributs des activités

**en** activity attributes

42

#### **konfigurazioaren kudeaketa-sistema**

Proiektuko objektuak arakatzeko eta objektu horietan gertatzen diren aldaketak monitorizatzeko eta kontrolatzeko erabilitako prozeduren multzoa.

**es** sistema de gestión de la configuración

**fr** système de gestion de la configuration

**en** configuration management system

43

#### **metodologia**

Diziplina batean lan egiten dutenek erabiltzen dituzten praktiken, tekniken, prozeduren eta arauen sistema.

**es** metodología

**fr** méthodologie

**en** methodology

44

#### **monitoretza eta kontroleko prozesuen talde**

Proiektuaren aurrerabideari eta performantziari jarraipena egiteko, aztertze eta erregulatzeko behar diren prozesuen multzoa. Helburua izango da aldatu beharreko planaren atalak identifikatzea eta egokiak diren aldaketa horiek egitea.

**es** grupo de procesos de monitoreo y control

**fr** groupe de processus de maîtrise

**en** monitoring and controlling process group

45

#### **monitorizatu**

Proiektuko lan-performantziari buruzko datuak bildu, performantzia-neurketak egin eta performantziari buruzko informazioa eman eta zabaldu.

**es** monitorear

**fr** suivre

**en** monitor

46

**muga**

Proiektu, programa, proiektu-zorro edo prozesu bat gauzatzeko bidean eragina duen faktore mugatzaile edo murriztailea.

**es** restricción

**fr** contrainte

**en** constraint

47

**mugarri**

Proiektu, programa edo proiektu-zorro baten barruan esangura berezia duen puntu edo gertakaria.

**es** hito

**fr** jalon

**en** milestone

48

**negozio-balio**

Negozio-ekimen baten ondorioz sortzen den irabazi kuantifikagarri garbia.

**es** valor del negocio

**fr** valeur commerciale

**en** business value

49

**negozio-kasu**

Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa dokumentatua. Definizio zehatzik ez duen osagai baten irabazien Baliagarritasuna zehazteko erabiltzen du proiektu-zuzendaritzak ondorengo beste jarduerak baimentzeko.

**es** caso de negocio

**fr** business case

**en** business case

50

**plangintza-prozesuen talde**

Proiektuaren irismena ezartzeko, helburuak fintzeko eta proiektuan proposatutako helburuak lortzeko ekintza-ibilbidea definitzeko behar diren prozesuen multzoa.

**es** grupo de procesos de planificación

**fr** groupe de processus de planification

**en** planning process group

51

**politika**

Erakundearen jokabidea gidatzen duten oinarritzko printzipioen multzoa.

**es** política

**fr** politique interne

**en** policy

52

**praktika**

Prozesu bat gauzatzean erabiltzen den lanbide-edo kudeaketa-jardueraren mota espezifiko, teknika eta tresna batez edo gehiagoz balia daitekeena.

**es** práctica

**fr** pratique

**en** practice

53

**produktuaren bizitza-ziklo**

Produktu baten bilakaera adierazten duten faseen multzoa (kontzeptua, entrega, hazkundera, heldutasuna eta erretiroa).

**es** ciclo de vida del producto

**fr** cycle de vie du produit

**en** product life cycle

54

**programa**

Era koordinatuan batera kudeatzen diren proiektuen, bigarren mailako programen eta erlazionaturiko jardueren multzoa.

**es** programa

**fr** programme

**en** program

55

**programa-zuzendaritza**

Programa batean ezagutzak, gaitasunak eta printzipioak aplikatzea, xedea izanik, betiere, programaren helburuak lortzea eta programaren osagaiak banaka kudeatzen direnean eskura ez dauden onurak eta kontrola lortzea.

**es** dirección del programa

**fr** management de programme

**en** program management

56

**proiektu**

Produktu, zerbitzu edo emaitza bat sortzeko denboran zehar gauzatzen den esfortzua.

**es** proyecto

**fr** projet

**en** project

57

**proiektu-fase**

Logikoki erlazionatuta dauden proiektuko jardueren multzoa. Entregagai bat edo gehiago amaituz burutzen da fase bakoitza.

**es** fase del proyecto

**fr** phase du projet

**en** project phase

58

**proiektu-zorro**

Helburu estrategikoak lortzeko, multzo gisa kudeatzen diren proiektuak, programak, bigarren mailako proiektu-zorroak eta eragiketak.

**es** portafolio; cartera

**fr** portefeuille

**en** portfolio

59

**proiektu-zorroen zuzendaritza**

Proiektu-zorro baten edo gehiagoren kudeaketa zentralizatua, helburu estrategikoak lortzeko xedea duena.

**es** dirección de portafolios

**fr** management de portefeuille

**en** portfolio management

60

**proiektu-zuzendaritzako bulego**

Proiektuarekin erlazionaturiko gobernantza-prozesuak estandarizatzen dituen kudeaketa-egitura, baliabideen, metodologiaren, tresnen eta tekniken trukea errazten duena.

**es** oficina de dirección de proyectos; PMO

**fr** bureau des projets

**en** project management office; PMO

61

**proiektu-zuzendaritzako ezagutza-arlo**

Proiektu-zuzendaritzako arlo berezia, ezagutza-eskakizunak eta haietako prozesuak, praktikak, datuak, emaitzak, tresnak eta teknikak zehazten dituena.

**es** área de conocimiento de la dirección de proyectos

**fr** domaine de connaissance en management de projet

**en** project management knowledge area

62

**proiektu-zuzendaritzako prozesuen talde**

Proiektu-zuzendaritzarekin harremana duten sarreraren, tresnen, tekniken eta irteeren taldekatze logikoa. Barnean hartzen dira planifikatzeko, gauzatzeko, monitorizatzeko, kontrolatzeko eta ixteko prozesuak. Ez dira proiektuko faseak.

**es** grupo de procesos de la dirección de proyecto

**fr** groupe de processus de management de projet

**en** project management process group

63

**proiektu-zuzendaritzako talde**

Proiektuaren zuzendaritza-jardueretan zuzenean parte hartzen duten kideez osatutako proiektu-taldea.

**es** equipo de dirección del proyecto

**fr** équipe de management de projet

**en** project management team

64

**proiektua haste**

Gerora proiektu berri bat baimentzea ekar dezakeen prozesua abiaraztea.

**es** iniciación del proyecto

**fr** initialisation du projet

**en** project initiation

65

**proiektuaren bizitza-ziklo**

Proiektu bat hasten denetik amaitzen den arte igarotzen diren faseen multzoa.

**es** ciclo de vida del proyecto

**fr** cycle de vie du projet

**en** project life cycle

66

**proiektuaren gobernantza**

Proiektu-zuzendaritza jarduerak gidarizat dituzten esparru, funtzio eta prozesuen multzoa. Helburua izango da, betiere, erakundearen helburu estrategikoak eta operatiboak betetzen dituen produktu, zerbitzu edo emaitza bat sortzea.

**es** gobernanza del proyecto

**fr** gouvernance du projet

**en** project governance

67

**proiektuko ezagutza kudeatu**

Lehendik dagoen ezagutza erabiltzeko eta ezagutza berria sortzeko prozesua; horren helburua da, betiere, proiektuaren helburuak lortzea eta erakundearen ikaskuntzan aurrera egitea.

**es** gestionar el conocimiento del proyecto

**fr** gérer les connaissances du projet

**en** manage project knowledge

68

**prozedura**

Helburu bat lortzeko edo prozesu bat betetzeko asmoz, ordena erregularrean egiten diren urrats zehaztuen multzoa.

**es** procedimiento

**fr** procédure

**en** procedure

69

**prozesu**

Elkarrekin erlazionaturiko jardueren segida sistematikoa, produktu, emaitza edo zerbitzu bat lortzea helburu duena.

**es** proceso  
**fr** processus  
**en** process

70

**sarrera**

Prozesu batek aurrera jarraitu baino lehen eskatzen duen proiektuaren barneko edo kanpoko elementua. Aurreko prozesu baten emaitza izan daiteke.

**es** entrada  
**fr** donnée d'entrée  
**en** input

71

**suposizio**

Plangintza-prozesuko faktorea, inolako frogarik gabe egiazkotzat edo errealizat hartzen dena.

**es** supuesto  
**fr** hypothèse  
**en** assumption

72

**suposizioen erregistro**

Proiektuaren bizitza-zikloan zehar suposizio edo muga guztiak erregistratzeko erabiltzen den proiektu-dokumentua.

**es** registro de supuestos  
**fr** journal des hypothèses  
**en** assumption log

73

**teknika**

Prozedura sistematiko eta definitua, pertsona batek edo gehiagok erabiltzen duena jarduera bat edo gehiago garatzeko. Produktu edo emaitza bat sortzea edo zerbitzu bat ematea izango da helburua, eta tresna bat edo gehiago erabil daitezke horretarako.

**es** técnica  
**fr** technique  
**en** technique

74

**teknika analitikoak**

Aldagaien balizko aldagaketan eta beste aldagai batzuekiko erlazioetan oinarrituta, emaitza potentzialak ebaluatzeko, aztertze edo pronostikatzeko erabiltzen diren teknikak.

**es** técnicas analíticas  
**fr** techniques analytiques  
**en** analytical techniques

75

**txantiloiak**

Dokumentu partzialki osoa, aldez aurretik ezarritako formatu batean eratua, eta datuak biltzeko, antolatzeko eta aurkezteko egitura definitu bat eskaintzen duena.

**es** plantillas  
**fr** modèles  
**en** templates

## 2. PROIEKTU-ZUZENDARIA

76

### **kudeaketa-gaitasunak**

Pertsonak edo pertsona-taldeak planifikatzeko, antolatzeke, zuzentzeko eta kontrolatzeko gaitasuna.

**es** habilidades de gestión

**fr** compétences en management

**en** management skills

77

### **proiektu-zuzendari**

Erakundeak proiektuaren arduradun nagusi izendatutako pertsona; hark izango du proiektuaren helburuak lortzeko eginkizuna duen taldea zuzentzeko ardura.

**es** director del proyecto; PM

**fr** chef de projet

**en** project manager; PM

78

### **proiektu-zuzendaritza**

Proiektuko jardueretan ezagutzak, gaitasunak, tresnak eta teknikak aplikatzea, xedea izanik, betiere, proiektuaren eskakizunak betetzea.

**es** dirección de proyectos

**fr** management de projet

**en** project management

79

### **proiektu-zuzendaritzako informazio-sistema**

Proiektu-zuzendaritzako prozesuen irteerak biltzeko, integratzeko eta zabaltzeko erabiltzen diren tresna eta teknikez osatutako informazio-sistema.

**es** sistema de información para la dirección de proyectos

**fr** système d'information de management du projet

**en** project management information system

80

### **proiektu-zuzendaritzako sistema**

Proiektu bat zuzentzeko erabiltzen diren prozesuen, tresnen, tekniken, metodologiaren, baliabideen eta prozeduren multzoa.

**es** sistema de dirección de proyectos

**fr** systèmes de management de projet

**en** project management system

81

### **proiektuko lana monitorizatu eta kontrolatu**

Proiektuaren aurrerapen orokorraren jarraipena egin, berrikusi eta horren berri eman. Xedea izango da proiektu-zuzendaritzako planean zehaztutako performantzia-helburuak betetzea.

**es** monitorear y controlar el trabajo del proyecto

**fr** maitriser le travail du projet

**en** monitor and control project work

82

### **proiektuko lana zuzendu eta kudeatu**

Proiektu-zuzendaritzako planean zehaztutako lana gidatu eta gauzatu, eta proiektuaren helburuak lortzeko onartu diren aldaketak ezarri.

**es** dirigir y gestionar el trabajo del proyecto

**fr** diriger et gérer le travail du projet

**en** direct and manage project work

### 3. PROIEKTUAREN INTEGRAZIOA

83

#### ahobatezkotasun

Taldeko kide guztiak ekintza-ildo bati buruz duten adostasuna.

**es** unanimidad

**fr** unanimité

**en** unanimity

84

#### akatsak konpontze

Produktu baten edo haren osagaien baten adostasun-eza aldatzeko jardura.

**es** reparación de defectos

**fr** correction des défauts

**en** defect repair

85

#### aldaketa-eskaera

Dokumentu, entregagai edo oinarri-lerro bat aldatzeko proposamen formal.

**es** solicitud de cambio

**fr** demande de changement

**en** change request

86

#### aldaketen erregistro

Proiektuan zehar aurkeztutako aldaketen eta uneko egoeren zerrenda osoa.

**es** registro de cambios

**fr** journal des changements

**en** change log

87

#### aldaketen kontrol integratua egin

Aldaketa-eskaera guztiak berrikusi, entregagaietan, erakundeko prozesuetako aktiboetan, proiektuko dokumentuetan eta proiektu-zuzendaritzako planean egin beharreko aldaketak onartu eta kudeatu, eta horri buruzko erabakiak komunikatu.

**es** realizar el control integrado de cambios

**fr** maîtriser les changements

**en** perform integrated change control

88

#### aldaketen kontrola

Proiektuarekin harremana duten dokumentuen, entregagaien edo oinarri-lerroen aldaketak identifikatzeko, dokumentatzeko, onartzeko edo baztertzeko prozesua.

**es** control de cambios

**fr** maîtrise des changements

**en** change control

89

#### aldaketen kontrolleko batzorde

Sin. CCB

Formalki eraturako taldea, proiektuaren aldaketak berrikusteko, ebaluatzeko, onartzeko, atzeratzeko edo baztertzeko ardura duena, bai eta erabaki horiek erregistratzeko eta jakinarazteko ardura ere.

**es** comité de control de cambios; CCB

**fr** comité de maîtrise des changements

**en** change control board; CCB

90

#### aldaketen kontrolleko sistema

Entregagaiak eta proiektuaren beste edozein dokumentu nola kontrolatu, aldatu eta onartuko diren zehazten duten prozedura dokumentatuen multzoa.

**es** sistema de control de cambios

**fr** système de maîtrise des changements

**en** change control system

91

#### aldaketen kontrolleko tresna

Aldaketen kontrola kudeatzen laguntzen duen tresna, eskuzkoa edo automatizatua.

**es** herramienta de control de cambios

**fr** outil de maîtrise des changements

**en** change control tool

92

#### aldaketen kudeaketa-plan

Proiektu-zuzendaritzako planaren osagaia; aldaketen kontrolleko batzordea ezartzen du, haren autoritate-maila dokumentatzen du, eta aldaketen kontrolleko sistema nola inplementatu behar den deskribatzen du.

**es** plan de gestión de cambios

**fr** plan de gestion des changements

**en** change management plan

93

**alderdi inplikatuak parte hartzeko plan**

Proiektu-zuzendaritzako planaren osagaia; alderdi inplikatuaren parte-hartze produktiboa sustatzeko estrategiak eta ekintzak identifikatzen ditu.

**es** plan de involucramiento de los interesados

**fr** plan d'engagement des parties prenantes

**en** stakeholder engagement plan

94

**alternatibaren analisi**

Identifikatutako aukerak ebaluatzeko erabiltzen den teknika; proiektuaren lana gauzatzeko erabili beharreko aukerak edo ikuspegiak hautatzea du helburu.

**es** análisis de alternativas

**fr** analyse des alternatives

**en** alternative analysis

95

**arriskuaren kudeaketa-plan**

Proiektu, programa edo proiektu-zorroko zuzendaritzako planaren osagaia; arriskuak kudeatzeko jarduerak nola egituratu eta gauzatuko diren deskribatzen du.

**es** plan de gestión de los riesgos

**fr** plan de gestion des risques

**en** risk management plan

96

**baliabidearen kudeaketa-plan**

Proiektu-zuzendaritzako planaren osagaia; proiektuaren baliabideak nola eskuratzen, esleitzen, monitorizatzen eta kontrolatzen diren deskribatzen du.

**es** plan de gestión de los recursos

**fr** plan de gestion des ressources

**en** resource management plan

**CCB**

Ik. aldaketaren kontrolerako batzorde

97

**desbideratzearen analisi**

Oinarri-lerroaren eta benetako performantziaren arteko aldearen kausa eta gradua zehazteko teknika.

**es** análisis de variación

**fr** analyse des écarts

**en** variance analysis

98

**eguneratze**

Aldaketaren kontrol formalaren pean ez dagoen entregagai bat, proiektu-zuzendaritzako planaren osagai bat edo proiektuko dokumentu bat aldatzea.

**es** actualización

**fr** mise a jour

**en** update

99

**ekintza prebentibo**

Proiektuan gero egingo den lana proiektu-zuzendaritzako planarekin bat etorriko dela ziurtatzea helburu duen jardura.

**es** acción preventiva

**fr** action préventive

**en** preventive action

100

**ekintza zuzentzaile**

Proiektuan egiten ari den lana proiektu-zuzendaritzako planarekin berriro bat etortzea helburu duen jardura.

**es** acción correctiva

**fr** action corrective

**en** corrective action

101

**erregresiozko analisi**

Teknika analitikoa; sarrera-aldagai batzuk dagozkien irteera-emaitzekin batera aztertzen dira, matematika- edo estatistika-erlazio bat garatzeko asmoz.

**es** análisis de regresión

**fr** analyse de régression

**en** regression analysis

102

**eskakizunaren kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; eskakizunak nola aztertu, dokumentatu eta kudeatuko diren deskribatzen du.

**es** plan de gestión de los requisitos

**fr** plan de gestion des exigences

**en** requirements management plan

103

**foku-talde**

Informazioa biltzeko teknika; gaian adituak diren parte-hartzaileak biltzen ditu, proposatutako produktu, zerbitzu edo emaitza batekiko dituzten itxaropenak eta jarrerak ezagutzeko.

**es** grupos focales

**fr** groupes de discussion

**en** focus groups

104

**hornitzeen kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; proiektu-talde batek erakundetik kanpoko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko modua deskribatzen du.

**es** plan de gestión de las adquisiciones

**fr** plan de gestion des approvisionnements

**en** procurement management plan

105

**ikasitakoak**

Proiektu batean eskuratutako ezagutza, etorkizunean performantzia hobetzen lagunduko duena. Proiektuko gertakari batzuei nola aurre egin zitzaizen eta etorkizunean nola jokatu beharko den erakusteko oinarria izan daitezke.

**es** lecciones aprendidas

**fr** retours d'expérience

**en** lessons learned

106

**ikasitakoaren bilduma**

Proiektuetan ikasitakoaren informazio historikoa biltzen duen artxiboa.

**es** repositorio de lecciones aprendidas

**fr** archive des retours d'expérience

**en** lessons learned repository

107

**ikasitakoaren erregistro**

Proiektu batean ikasitakoak erregistratzen dituen proiektuaren dokumentua.

**es** registro de lecciones aprendidas

**fr** registre des retours d'expérience

**en** lessons learned register

108

**informazio historiko**

Aurreko proiektuei buruzko dokumentuak eta datuak; barnean hartzen dira proiektuen artxiboak, erregistroak, korrespondentziak, kontratu osatuak eta itxitako proiektuak.

**es** información histórica

**fr** données historiques

**en** historical information

109

**irizpide anitzeko erabakien analisi**

Erabaki-matrize bat erabiltzen duen teknika; ikuspegi analitiko sistematikoa eskaintzen du irizpideak ezartzeko eta ideiak ebaluatu eta sailkatzeko.

**es** análisis de decisiones con múltiples criterios

**fr** analyse décisionnelle multicritère

**en** multicriteria decision analysis

110

**joeren analisi**

Emaitza historikoetan oinarrituz, etorkizuneko emaitzak aurreikusteko eredu matematikoak erabiltzen dituen teknika analitikoa.

**es** análisis de tendencias

**fr** analyse de la tendance

**en** trend analysis

111

**kalitatearen kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; kalitate-helburuak lortzeko aplikatu daitezkeen politikak, prozedurak eta jarraibideak nola inplementatuko diren deskribatzen du.

**es** plan de gestión de la calidad

**fr** plan de gestion de la qualité

**en** quality management plan

112

**komunikazioen kudeaketa-plan**

Proiektu, programa edo proiektu-zorroko zuzendaritzako planaren osagaia; proiektuari buruzko informazioa nola, noiz eta noren bidez administratuko eta zabalduko den deskribatzen du.

**es** plan de gestión de las comunicaciones

**fr** plan de gestion de la communication

**en** communications management plan

113

**konfigurazioaren kudeaketa-plan**

Proiektu-zuzendaritzako planaren osagaia; konfigurazio-kontrolpeko proiektuko objektuak identifikatzeko eta kontuan hartzeko modua deskribatzen du, bai eta haietan egindako aldaketak erregistratzeko eta informatzeko modua ere.

**es** plan de gestión de la configuración

**fr** plan de gestion de la configuration

**en** configuration management plan

114

**kostuen kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; kostuak planifikatzeko, egituratzeko eta kontrolatzeko modua deskribatzen du.

**es** plan de gestión de los costos

**fr** plan de gestion des coûts

**en** cost management plan

115

**kronogramaren kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; kronograma garatzeko, monitorizatzeko eta kontrolatzeko irizpideak eta jarduerak ezartzen ditu.

**es** plan de gestión del cronograma

**fr** plan de gestion de l'échéancier

**en** schedule management plan

116

**oinarri-lerro**

Lan-produktu baten bertsio onartua, emaitza errealekin konparatzeko oinarri gisa erabiltzen dena. Aldaketen kontrolleko prozedura formalen bidez soilik alda daiteke

**es** línea base

**fr** référence de base

**en** baseline

117

**plangintza-tresna**

Plangintza-metodo bat aplikatzeko erabiltzen diren kronogramaren osagaien izenak, definizioak, egiturazko erlazioak eta formatuak eskaintzen dituen tresna.

**es** herramienta de planificación

**fr** outil de planification

**en** scheduling tool

118

**proiektu-zuzendaritzako plan**

Proiektua nola gauzatuko den, nola monitorizatu eta kontrolatuko den eta nola itxiko den deskribatzen duen dokumentua.

**es** plan para la dirección del proyecto

**fr** plan de management du projet

**en** project management plan

119

**proiektua eratzeko akta**

Proiektua hasten duenak edo babesleak egindako dokumentua; proiektu bat dagoela formalki onesten du, eta erakundearen baliabideak proiektuaren jardueretan aplikatzeko agintaritza ematen dio proiektu-zuzendariari.

**es** acta de constitución del proyecto

**fr** charte du projet

**en** project charter

120

**proiektua eratzeko akta garatu**

Dokumentu bat garatu, proiektu bat formalki baimentzeko eta proiektu-zuzendariari erakundearen baliabideak proiektuaren jardueretan aplikatzeko autoritatea emateko.

**es** desarrollar el acta de constitución del proyecto

**fr** élaborer la charte du projet

**en** develop project charter

121

**proiektua zuzentzeko plana garatu**

Planaren osagai guztiak definitu, prestatu eta koordinatzea, eta proiektu-zuzendaritzako plan integral batean txertatzea.

**es** desarrollar el plan para la dirección del proyecto

**fr** élaborer le plan de management du projet

**en** develop project management plan

122

**proiektuaren integrazioaren kudeaketa**

Proiektu-zuzendaritzako prozesuak eta jarduerak identifikatzeko, definitzeko, konbinatzeko, bateratzeko eta koordinatzeko prozesuen eta jardueren multzoa.

**es** gestión de la integración del proyecto

**fr** gestion de l'intégration du projet

**en** project integration management

123

**talde-zuzendaritzako plan**

Baliabideen kudeaketa planaren osagaia; taldekideak noiz eta nola eskuratuko diren deskribatzen du, bai eta zenbat denborarako izango diren beharrezkoak ere.

**es** plan para la dirección del equipo

**fr** plan de gestion de l'équipe

**en** team management plan

124

**tresna**

Jarduera bat egitean produktu edo emaitza bat sortzeko erabiltzen den elementua (hala nola txantilo bat edo software-programa bat).

**es** herramienta

**fr** outil

**en** tool

125

**zenbatespenen oinarri**

Proiektuaren zenbatespenak ezartzeko erabilitako xehetasunak (suposizioak, mugak, konfiantza-mailak, etab.) deskribatzen dituen dokumentazio lagungarria.

**es** base de las estimaciones

**fr** base des estimations

**en** basis of estimates

## 4. IRISMENA

126

### **afinitate-diagrama**

Idea ugari taldeka sailkatzea, aztertzea eta berrikusteko aukera ematen duen irudikapen grafikoa.

**es** diagrama de afinidad

**fr** diagramme d'affinité

**en** affinity diagram

127

### **ardurak esleitzeko matrize**

Antolaketa-organigrama eta lanen organigrama erlazionatzen dituen matrizea, osagai edo lan-lote bakoitzari esleitutako proiektuko baliabideak erakusten dituena.

**es** matriz de asignación de responsabilidades; RAM

**fr** matrice des responsabilités

**en** responsibility assignment matrix; RAM

128

### **benchmarking**

Erakunde bateko praktika, prozesu eta produktu erreal edo planifikatuak pareko beste erakunde batekoekin konparatzen dituen azterketa; helburua da praktika onenak identifikatzea, hobetzeko ideiak sortzea eta performantzia neurtzeko oinarri bat lortzea.

**es** estudios comparativos

**fr** benchmarking

**en** benchmarking

129

### **deskonposizio**

Proiektuaren irismena eta entregagaiak osagai txikiagoetan eta erabilerrazagoetan zatitzeko teknika.

**es** descomposición

**fr** décomposition

**en** decomposition

130

### **dokumentazio-berrikuspenak**

Informazio-corpus bat biltzeko eta berrikusteko prozesua, haren zehaztasuna eta osotasuna bermatzeko egiten dena.

**es** revisiones a la documentación

**fr** revues de la documentation

**en** documentation reviews

131

### **emaitza**

Proiektu-zuzendaritzako prozesu eta jardueretan gauzatzen den irteera bakoitza.

**es** resultado

**fr** résultat

**en** result

132

### **entregagai egiaztatuak**

Proiektuko entregagai osatuak, kalitatea kontrolatzeko prozesuaren bidez zuzentzat egiaztatu eta berretsi direnak.

**es** entregables verificados

**fr** livrables vérifiés

**en** verified deliverables

133

### **entregagai onartuak**

Proiektu batek sortutako eta bezeroak edo proiektuaren babesleek balidatutako produktuak, emaitzak edo gaitasunak, ezarritako onarpen-irizpideak betetzen dituztenak.

**es** entregables aceptados

**fr** livrables acceptés

**en** accepted deliverables

134

### **eskakizun**

Produktu, zerbitzu edo emaitza batek negozio-premia bati erantzuteko bete behar duen baldintza edo eduki behar duen ezaugarria.

**es** requisito

**fr** exigence

**en** requirement

135

### **eskakizunak bildu**

Alderdi inplikatuaren beharrak eta eskakizunak zehaztu, dokumentatu eta kudeatu.

**es** recopilar requisitos

**fr** recueillir les exigences

**en** collect requirements

136

**eskakizunen dokumentazio**

Eskakizun bakoitzak proiektuaren negozio-beharrak nola betetzen dituen azaltzen duen deskribapen dokumentatua.

**es** documentación de requisitos

**fr** documentation des exigences

**en** requirements documentation

137

**eskakizunen trazagarritasuneko matrize**

Produktuaren eskakizunak erakusten dituen matrizea, produktuaren sorreratik hasi eta eskakizun horiek betetzen dituzten entregagaietarako.

**es** matriz de trazabilidad de requisitos

**fr** matrice de traçabilité des exigences

**en** requirements traceability matrix

138

**fase-ate**

Fase baten amaieran egiten den berrikuspena. Bertan erabakiko da hurrengo fasera pasatzea, aldaketekin jarraitzea edo proiektu edo programa bat amaitutzat ematea.

**es** revisión de fase

**fr** porte de phase

**en** phase gate

139

**garapen-metodo**

Proiektuaren bizitza-zikloan zehar produktua, zerbitzua edo emaitza sortzeko eta garatzeko erabilitako metodoa

**es** enfoque de desarrollo

**fr** approche de développement

**en** development approach

140

**irismen**

Proiektu gisa emango diren produktuen, zerbitzuen eta emaitzen multzoa.

**es** alcance

**fr** périmètre

**en** scope

141

**irismena balidatu**

Proiektuan osatu diren entregagaien onarpena formalizatzea.

**es** validar el alcance

**fr** valider le périmètre

**en** validate scope

142

**irismena definitu**

Proiektuaren eta produktuaren deskribapen zehatz eta garatua landu.

**es** definir al alcance

**fr** définir le périmètre

**en** define scope

143

**irismena kontrolatu**

Proiektuaren eta produktuaren irismena monitorizatu eta irismenaren oinarri-lerroko aldaketak kudeatu.

**es** controlar el alcance

**fr** maîtriser le périmètre et le contenu

**en** control scope

144

**irismena lerratze**

Produktuaren edo proiektuaren irismena kontrolik gabe hedatzea, denbora, kostua eta baliabideak egokitu gabe.

**es** corrupción del alcance; deslizamiento del alcance

**fr** dérive du périmètre

**en** scope creep

145

**irismenaren kudeaketa planifikatu**

Irismena kudeatzeko plan bat landu, proiektuaren eta produktuaren irismena nola definituko, balidatuko eta kontrolatuko den dokumentatzeko.

**es** planificar la gestión del alcance

**fr** planifier la gestion du périmètre et du contenu

**en** plan scope management

146

**irismenaren oinarri-lerro**

Irismenaren adierazpenaren, lanen organigramaren eta honekin lotutako hiztegiaren bertsio onartua. Emaitza errealekin konparatzeko oinarri gisa erabiltzen da, eta aldaketen kontroleko prozedura formalen bidez soilik alda daiteke.

**es** línea base del alcance

**fr** référence de base du périmètre

**en** scope baseline

147

**kontu-kode**

Lanen organigramako osagai bakoitza identifikatzeko erabiltzen den zenbakizko kodea.

**es** código de cuentas

**fr** code wbs

**en** code of accounts

148

**lan-lote**

Lanen organigramaren mailarik baxuenean definitutako lana; haren kostua eta iraupena kalkulatu eta kudeatu egiten dira.

**es** paquete de trabajo

**fr** lot de travaux

**en** work package

149

**lanen organigrama**

Sin. WBS

Proiektu-taldeak proiektuaren helburuak betetzeko eta behar diren entregagaiak sortzeko egin behar duen lanaren irismen osoa erakusten duen irudikapen hierarkikoa.

**es** estructura de desglose del trabajo; EDT

**fr** organigramme des travaux du projet

**en** work breakdown structure; WBS

150

**lanen organigrama sortu**

Sin. WBSa sortu

Proiektuaren entregagaiak eta proiektuaren lana osagai txikiagoetan eta erabilerrazagoetan zatitzea.

**es** crear la estructura de desglose de trabajo; crear la EDT

**fr** créer le WBS

**en** create WBS

151

**lanen organigramako osagai**

Lan-organigramako sarrera, organigramaren edozein mailatan egon daitekeena.

**es** componente de la estructura de desglose del trabajo

**fr** élément de l'organigramme des travaux du projet

**en** work breakdown structure component

152

**lanen organigramaren hiztegia**

Sin. WBSko hiztegia

Lanen organigramako osagai bakoitzaren entregagaiei, jardueri eta plangintzari buruzko informazio zehatza ematen duen dokumentua.

**es** diccionario de la estructura de desglose de trabajo; diccionario de la EDT

**fr** dictionnaire du wbs

**en** wbs dictionary

153

**lantze progresibo**

Informazio gehiago eta zenbatespen zehatzagoak dauden heinean proiektu-zuzendaritzako plan baten xehetasun-maila handitzen duen prozesu iteratiboa.

**es** elaboración progresiva

**fr** élaboration progressive

**en** progressive elaboration

154

**mind-mapping**

Banakako ideia-jasen saioetan sortzen diren ideiak eskema osatu eta bakar batean txertatzeko erabiltzen den teknika. Helburua da puntu komunak eta ulermen-desberdintasunak islatzea eta, horrela, ideia berriak sortzea.

**es** mapeo mental

**fr** mindmapping

**en** mind-mapping

155

**oinarrizko arauak**

Proiektu-talde batek adostutako jokabide onargarrien eta onartezinen zerrenda.

**es** reglas básicas

**fr** règles de base

**en** ground rules

156

**onartzeko irizpideak**

Entregagaiak onartu aurretik bete beharreko baldintzen multzoa.

**es** criterios de aceptación

**fr** critères d'acceptation

**en** acceptance criteria

157

**plangintza-lote**

Lanen organigramaren osagaia, kontrol-kontuaren behe-mailakoa; bertako lanaren edukiak ezagunak dira, baina ez du jarduerarik zehaztuta kronograman.

**es** paquete de planificación

**fr** lot de planification

**en** planning package

158

**produktu**

Ekotzitako artikulua edo objektu kuantifikagarria. Elementu amaitu bat edo osagai bat izan daiteke.

**es** producto

**fr** produit

**en** product

159

**produktu-irismenaren adierazpen**

Proiektuaren irismenaren, entregagai nagusien, suposizioen eta mugen deskribapena.

- es** enunciado del alcance del proyecto
- fr** énoncé du périmètre du projet
- en** project scope statement

160

**produktuaren analisi**

Produktu baten irismena definitzeko tresna analitikoa; produktuari buruzko galderak egiten dira, eta, erantzunen bitartez, produktuaren erabilera, ezaugarriak eta beste alderdi garrantzitsu batzuk deskribatzen dira.

- es** análisis del producto
- fr** analyse du produit
- en** product analysis

161

**produktuaren irismen**

Produktu, zerbitzu edo emaitza baten funtzioak eta ezaugarriak.

- es** alcance del producto
- fr** contenu du produit
- en** product scope

162

**produktuaren irismena deskribatze**

Produktuaren irismenaren azalpen zehatza eta dokumentatua.

- es** descripción del alcance del producto
- fr** description du contenu du produit
- en** product scope description

163

**proiektu-irismenaren kudeaketa**

Proiektua arrakastaz osatzeko, proiektuak eskatzen duen lan guztia eta soilik eskatzen duen lana egin dela bermatzeko prozesuen multzoa.

- es** gestión del alcance del proyecto
- fr** gestion du périmètre du projet
- en** project scope management

164

**proiektuaren irismen**

Produktu, zerbitzu edo emaitza bat zehaztutako funtzio eta ezaugarriekin entregatzeko egin behar den lana.

- es** alcance del proyecto
- fr** périmètre du projet
- en** project scope

165

**proiektuaren irismeneko kudeaketa-plan**

Proiektu- edo programa-zuzendaritzako planaren osagaia; irismena nola definituko, garatuko, monitorizatuko, kontrolatuko eta balidatuko den deskribatzen du.

- es** plan para la gestión del alcance del proyecto
- fr** plan de gestion du périmètre
- en** scope management plan

166

**prototipo**

Eskakizunen arloan informazio-atzeraelikadura lasterra lortzeko metodoa. Horretarako, espero den produktuaren modelo operatiboa eskaintzan da, produktua benetan ekoitzi aurretik.

- es** prototipo
- fr** prototype
- en** prototype

167

**talde nominaleko teknika**

Bozketa-prozesu baten bidez ideia-jasaren mekanismoa hobetzen duen teknika. Ideia erabilgarrienak hierarkizatze, ideia-jasa gehigarri bat egiteko edo lehentasunak esleitzeko erabiltzen da.

- es** técnica de grupo nominal
- fr** technique du groupe nominal
- en** nominal group technique

168

**testuinguru-diagrama**

Produktuaren irismenaren irudikapen grafikoa; sistema bat erakusten du (prozesu bat, ekipamendu bat), eta pertsonak eta beste eragile batzuek harekin zer-nolako interakzioa duten.

- es** diagrama de contexto
- fr** schéma contextuel
- en** context diagram

**WBS**

Ik. lanen organigrama

**WBSa sortu**

Ik. lanen organigrama sortu

**WBSko hiztegia**

Ik. lanen organigramaren hiztegia

169

**zehaztapen**

Bete behar diren eta eskatzen diren funtsezko ezaugarri eta beharren azalpen zehatza.

**es** especificación

**fr** spécifications

**en** specification

## 5. KOSTUA

170

### amaierako aurrekontu

Egin beharreko lanerako zehaztu diren aurrekontu guztien batura.

**es** presupuesto hasta la conclusión; BAC

**fr** budget a terminaison

**en** budget at completion; BAC

171

### amaierako desbideratze

Aurrekontuko defizitaren edo superabitaren zenbatekoaren proiektzioa. Amaierako aurrekontuaren eta amaierako kostu zenbatetsiaren arteko aldea adierazten du.

**es** variación a la conclusión; VAC

**fr** écart a terminaison

**en** variance at completion; VAC

172

### amaierako zenbatespen

Lana guztiz osatzeko aurreikusitako kostu totala; uneko kostu errearen eta amaierara arteko kostuaren zenbatespenaren batura da.

**es** estimación a la conclusión; EAC

**fr** coût estimé à terminaison

**en** estimate at completion; EAC

173

### amaitzeko lanaren performantziaren indize

Kudeaketa-helburu bat betetzeko, gainerako baliabideekin lortu beharreko kostu-performantziaren neurria. Egiteke dagoen lana burutzeko kostuaren eta gainerako aurrekontuaren arteko tasa gisa adierazten da.

**es** índice de desempeño del trabajo por completar; TCPI

**fr** indice de performance a terminaison du projet

**en** to-complete performance index; TCPI

174

### amaitzeko zenbatespen

Proiektuan egiteke dagoen gainerako lan guztia amaitzeko aurreikusten den kostua.

**es** estimación hasta la conclusión; ETC

**fr** coût de reste à faire

**en** estimate to complete; ETC

175

### aurrekontu

Proiekturako edo lanen organigramako edozein osagairako edo kronogramako edozein jardueratarako onetsitako zenbatespena.

**es** presupuesto

**fr** budget

**en** budget

176

### aurrekontua zehaztu

Jardueren edo lan-loteen gutxi gorabeherako kostuak batzea, kostuaren oinarri-lerro baimendu bat ezartzeko.

**es** determinar el presupuesto

**fr** déterminer le budget

**en** determine budget

177

### balio irabazi

Egindako lanaren balioa, lan horretarako onartutako eta esleitutako aurrekontuaren terminoetan adierazia.

**es** valor ganado; EV

**fr** valeur acquise

**en** earned value

178

### balio irabaziaren kudeaketa

Proiektuaren performantzia eta aurrerabidea ebaluatzeko irismen, kronograma eta baliabideetako neurketak konbinatzen dituen metodologia.

**es** gestión del valor ganado

**fr** gestion de la valeur acquise

**en** earned value management

179

### balio planifikatu

Planifikatutako lana bati esleitu zaion aurrekontu baimendua.

**es** valor planificado; PV

**fr** valeur planifiée

**en** planned value; PV

180

**desbideratze**

Oinarri-lerro batekiko edo espero den balio batekiko gertatzen den desbideratze, aldaketa edo dibergentzia kuantifikagarria.

**es** variación

**fr** écart

**en** variance

181

**erreserba**

Proiektu-zuzendaritzako planaren funts-hornidura, kronogramaren edo kostuen arriskuak arintzeko erabiliko dena.

**es** reserva

**fr** réserve

**en** reserve

182

**erreserbaren analisi**

Proiektu bateko kronogramaren, aurrekontuaren, aurreikusitako kostuen edo funtsen iraupenerako erreserba bat ezartzea helburu duen teknika analitikoa, proiektu-zuzendaritzako planeko osagaien ezaugarriak eta funtsezko erlazioak zehazten dituena.

**es** análisis de reserva

**fr** analyse de la réserve

**en** reserve analysis

183

**finantzaketa-mugak bateratze**

Proiektuaren funtsen gastu planifikatua eta proiekturako finantzaketa-mugak konparatzeko prozesua, mugen eta planifikatutako gastuen arteko edozein aldaketa identifikatzeko helburua duena.

**es** conciliación del límite de financiamiento

**fr** réconciliation des limites de financement

**en** funding limit reconciliation

184

**histograma**

Zenbakizko datuen irudikapen grafikoa erakusten duen barra-diagrama.

**es** histograma

**fr** histogramme

**en** histogram

185

**irabazien kudeaketa-plan**

Proiektu edo programa batean irabaziak sortzeko, maximizatzeko eta mantentzeko prozesuak definitzen dituen azalpen dokumentatua.

**es** plan de gestión de beneficios

**fr** plan de gestion des bénéfices

**en** benefits management plan

186

**kalitatearen kostu**

Produktuaren bizitzan kalitate-eskakizunak betetzeko eta desadostasunen prebentzioa egiteko inbertsioen kostua.

**es** costo de la calidad

**fr** coût de la qualité

**en** cost of quality; CoQ

187

**kontingentzien erreserba**

Kronograman edo kostuen oinarri-lerroan erreserbatzen den denbora edo dirua, erantzun-estrategia aktiboak dituzten arrisku ezagunei esleitzen zaiena.

**es** reserva para contingencias; colchón

**fr** réserve pour aléa; tampon

**en** contingency reserve; buffer

188

**kontrol-kontu**

Administrazioko kontrol-elementua; bertan zehazten dira irismena, aurrekontua, kostu erreala eta kronograma, eta irabazitako balioarekin konparatzen dira performantzia neurtzeko.

**es** cuenta de control

**fr** centre de consolidation

**en** control account

189

**kostu agregatu**

Behe-mailako kostu zenbatetsien batura, hau da, proiektuaren lan-organigramako maila jakin bateko edo kostuen kontrol-kontu jakin bateko lan-loteekin erlazionaturiko kostuena.

**es** costos agregados

**fr** consolidation des coûts

**en** cost aggregation

190

**kostu erreal**

Jarduera batean denbora-tarte jakin batean egindako lanak eragindako kostua.

**es** costo real; AC

**fr** coût réel

**en** actual cost; AC

191

**kostu-desbideratze**

Une jakin batean aurrekontuak duen defizitaren edo superabitaren zenbatekoa. Balio irabaziaren eta kostu errearen arteko aldea adierazten du.

**es** variación del costo; CV

**fr** écart de coût

**en** cost variance; CV

192

**kostu-irabazien analisi**

Finantza-analisirako tresna; proiektu baten kostuen eta proiektuak eskaintzen dituen irabazien arteko erlazioa zehazteko erabiltzen da.

**es** análisis costo-beneficio

**fr** analyse coût-bénéfice

**en** cost-benefit analysis

193

**kostu-performantziaren indize**

Aurrekontuan sartutako baliabideen kostuen araberako efizientzia-neurria, irabazitako balioaren eta benetako kostuaren arteko arrazoi gisa adierazia.

**es** índice de desempeño del costo; CPI

**fr** indice de performance des coûts

**en** cost performance index; CPI

194

**kostuak kontrolatu**

Proiektuaren egoera monitorizatu, proiektuaren kostuak eguneratzeko eta kostuen oinarri-lerrorako aldaketak kudeatzeko.

**es** controlar los costos

**fr** maîtriser les coûts

**en** control costs

195

**kostuak zenbatetsi**

Proiektuaren lana osatzeko behar diren diru-baliabideen kalkulua zehaztu.

**es** estimar los costos

**fr** estimer les coûts

**en** estimate costs

196

**kostuen kudeaketa planifikatu**

Proiektuaren kostuak nola zenbatetsi, aurrekontuan sartu, kudeatu, monitorizatu eta kontrolatu behar diren definitu.

**es** planificar la gestión de los costos

**fr** planifier la gestion des coûts

**en** plan cost management

197

**kostuen oinarri-lerro**

Proiektuaren aurrekontuaren bertsio onartua, denbora-faseka zehaztua eta zuzendaritzaren erreserbak kontuan hartzen ez dituen. Eraitza errealekin konparatzeko oinarri gisa erabiltzen da, eta aldaketen kontrolerako prozedura formalen bidez soilik alda daiteke.

**es** línea base de costos

**fr** référence de base des coûts

**en** cost baseline

198

**lan-performantziaren datuak**

Proiektuaren lana egiteko gauzatu diren jardueretan identifikatutako neurketa- edo behaketa-emaitza gordinak.

**es** datos de desempeño del trabajo

**fr** données de performance d'exécution

**en** work performance data

199

**lan-performantziaren informazio**

Lan-performantziari buruzko datuak, kontrol-prozesuetan bildutakoak. Proiektu-zuzendaritzako planaren osagaiekin, proiektuko dokumentuekin eta lan-performantziari buruzko bestelako informazioarekin konparatuta aztertzen dira.

**es** información de desempeño del trabajo

**fr** information sur la performance d'exécution

**en** work performance information

200

**lan-performantziaren txosten**

Lan-performantziari buruzko informazioaren irudikapen fisikoa edo elektronikoa, proiektuko dokumentuetan jaso eta erabakiak edo ekintzak eragiteko helburua duena.

**es** informe de desempeño del trabajo

**fr** rapport sur la performance d'exécution

**en** work performance report

201

**performantzia neurtzeko oinarri-lerro**

Irismenaren, kronogramaren eta kostuen oinarri-lerro integratuak, konparazio-tresna gisa erabiliak proiektuaren gauzatzea kudeatzeko, neurtzeko eta kontrolatzeko.

**es** línea base para la medición del desempeño;

PMB

**fr** référence de base de la performance

**en** performance measurement baseline; PMB

202

**performantzia-berrikuspenak**

Proiektuan egiten ari den lanaren performantzia neurtzeko eta oinarri-lerroarekin konparatzeko erabiltzen den teknika.

**es** revisiones del desempeño

**fr** revues de performance

**en** performance reviews

203

**proiektua finantzatzeko eskakizun**

Proiektuan ordaindu beharko diren kostuen pronostikoa; eskakizunetarako kostuaren oinarri-lerrotik eratortzen dira, eta proiektatutako gastuak eta aurreratutako zorrak hartzen ditu barnean.

**es** requisitos de financiamiento del proyecto

**fr** besoin en financement du projet

**en** project funding requirements

204

**proiektuko kostuen kudeaketa**

Kostuak planifikatzeko, zenbatesteko, finantzatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko erabiltzen diren prozesuen multzoa, helburua izanik, betiere, proiektua onartutako aurrekontuaren barruan osatzea.

**es** gestión de los costos del proyecto

**fr** gestion des coûts du projet

**en** project cost management

205

**pronostiko**

Proiektuaren etorkizuneko baldintzak eta gertakariak zenbatestea edo aurreikustea, pronostikoa egiteko unean eskura dauden informazioan eta ezagutzan oinarrituta.

**es** pronóstico

**fr** prévision

**en** forecast

206

**tolerantzia**

Kalitate-eskakizun batean onartzen den desbideratzearen deskribapen kuantifikatua.

**es** tolerancia

**fr** tolérance

**en** tolerance

207

**zuzendaritzaren erreserba**

Proiektuaren aurrekontuaren edo kronogramaren zatia, performantzia neurtzeko oinarri-lerrotik kanpo erreserbatzen dena kudeaketa kontrolatzeko helburuarekin. Proiektuaren irismenaren barruan egin behar

diren ezusteko edo aurreikusi gabeko lanak egiteko erreserbatzen da.

**es** reserva de gestión

**fr** réserve pour imprévus

**en** management reserve

## 6. KALITATEA

208

### **adostasun**

Kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan, emaitzak kalitate-eskakizun bateko desbideratze onargarria definitzen duten mugen barruan entregatzea.

**es** conformidad  
**fr** conformité  
**en** conformance

209

### **akats**

Proiektu bateko osagai baten inperfekzioa edo gabezia; horren ondorioz, osagai horrek ez ditu eskakizunak edo zehaztapenak betetzen, eta konpondu edo ordeztu egin behar da.

**es** defecto  
**fr** défaut  
**en** defect

210

### **arrain-hezur diagrama**

Sin. kausa-efektu diagrama

Deskonposizio-teknikako irudikapen grafikoa, nahi ez den efektu bat arakatu eta haren erroko kausaraino iristen laguntzen duena.

**es** diagrama de espina de pescado; diagrama de causa y efecto  
**fr** diagramme en arête de poisson; diagramme cause-effet  
**en** fishbone diagram; cause and effect diagram

211

### **atributukako laginketa**

Kalitatea neurtzeko metodoa, kontuan hartu beharreko unitate bakoitzean atributu bat badagoen edo ez dagoen behatzean datzana.

**es** muestreo por atributos  
**fr** échantillonnage par attributs  
**en** attribute sampling

212

### **baliabide-kudeatzaile**

Baliabide bat edo gehiagoren gaineko autoritatea duen pertsona.

**es** gerente de recursos  
**fr** gestionnaire des ressources  
**en** resource manager

213

### **balidazio**

Produktu, zerbitzu edo emaitza batek bezeroaren edo alderdi inplikatuaren beharrak asetzen dituela ziurtatzeko egindako prozesua.

**es** validación  
**fr** validation  
**en** validation

214

### **egiaztapen**

Produktu, zerbitzu edo emaitza batek araudi, eskakizun, zehaztapen edo baldintza jakin bat betetzen duen ala ez ebaluatzeko prozesua.

**es** verificación  
**fr** vérification  
**en** verification

215

### **egiaztapen-orri**

Datuak biltzen direnean kontrol-zerrenda gisa erabil daitekeen ohar-orria.

**es** hoja de verificación  
**fr** fiche de contrôle  
**en** checksheet

216

### **egiaztapen-zerrendako analisi**

Materialak, urratsak edo bestelako elementuak sistematikoki berrikusteko teknika, zerrenda bat erabiltzen duena haiek behar bezala daudela edo bete direla egiaztatzeko.

**es** análisis de la lista de verificación  
**fr** analyse des listes de contrôle  
**en** checklist analysis

217

### **erreklamazio**

Saltzaile batek erosle bati buruz (edo alderantziz) egindako eskaera, kexu edo adierazpena. Eskaera hori kontuan hartzeko, konpentsatzeko edo ordaintzeko egiten da, legez loteslea den kontratu baten baldintzen arabera.

**es** reclamación  
**fr** réclamation  
**en** claim

218

**erroko kausen analisi**

Desbideratze, akats edo arrisku bat eragiten duen kausa zehazteko erabiltzen den teknika analitikoa. Desbideratze, akats edo arrisku bat baino gehiago erroko kausa beraren ondorio izan daitezke.

- es** análisis de causa raíz
- fr** analyse des causes originelles
- en** root cause analysis

219

**fluxu-diagrama**

Sistema bateko prozesu baten edo gehiagoren sarrerak, prozesu-ekintzak eta irteerak erakusten dituen irudikapen grafikoa.

- es** diagrama de flujo
- fr** diagramme de flux
- en** flowchart

220

**ikuskapen**

Lan-produktu bat aztertzea, dokumentatutako estandarretara egokitzen den zehazteko.

- es** inspección
- fr** inspection
- en** inspection

221

**kalitate**

Berezko ezaugarri-multzo batek eskakizunekiko duen betetze-maila.

- es** calidad
- fr** qualité
- en** quality

222

**kalitate-auditoria**

Proiektuko jarduerak proiektuaren eta erakundearen politikak, prozesuak eta prozedurak betetzen dituzten zehazteko egiten den berrikuspen-prozesua.

- es** auditoría de calidad
- fr** audit qualité
- en** quality audit

223

**kalitate-eskakizun**

Produktu, zerbitzu edo emaitza baten adostasuna ebaluatzeke baldintza edo ezaugarria, emaitzaren kalitatea neurtzeko adierazle gisa erabiltzen dena.

- es** requisito de calidad
- fr** exigence de qualité
- en** quality requirement

224

**kalitate-kontrolleko neurketak**

Kalitatea kontrolatzeko jardueren emaitza dokumentatuak.

- es** mediciones de control de calidad
- fr** mesures de contrôle de la qualité
- en** quality control measurements

225

**kalitate-metrikak**

Proiektuaren edo produktuaren atributu baten deskribapena eta atributu hori neurtzeko modua.

- es** métricas de calidad
- fr** métriques qualité
- en** quality metrics

226

**kalitate-politika**

Kalitatea kudeatzeko sistema ezartzean erakundearen ekintzen gidari izan beharko luketen oinarriko printzipioak ezartzen dituen dokumentua.

- es** política de calidad
- fr** politique qualité
- en** quality policy

227

**kalitate-txosten**

Proiektuko dokumentua, kalitatearen inguruko hainbat alderdi biltzen dituena: kalitatearen kudeaketa, ekintza zuzentzaileen gomendioak eta kalitatea kontrolatzeko jardueren laburpena. Era berean, prozesuak, proiektuak eta produktuak hobetzeko gomendioak ere jaso ditzake.

- es** informe de calidad
- fr** rapport de qualité
- en** quality report

228

**kalitatea kontrolatu**

Kalitatea kudeatzeko jardueren emaitzak monitorizatu eta erregistratu, performantzia ebaluatzeke eta proiektuaren irteerak zuzenak direla eta bezeroaren nahiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

- es** controlar la calidad
- fr** maîtriser la qualité
- en** control quality

229

**kalitatea kudeatu**

Kalitatearen kudeaketa-plana kalitateko jarduera gauzagarrietan xehatu eta bideratu, proiektuan erakundearen kalitate-politikak txertatu ahal izateko.

**es** gestionar la calidad

**fr** gérer la qualité

**en** manage quality

230

**kalitatearen egiaztapen-zerrenda**

Egin beharreko urratsak egin direla egiaztatzeko erabiltzen den tresna egituratua.

**es** lista de verificación de calidad

**fr** checklist de la qualité

**en** quality checklist

231

**kalitatearen kudeaketa planifikatu**

Proiektuaren eta entregagaien eskakizunak eta kalitate-estandarrak identifikatu; era berean, proiektuan eskakizun eta estandar horiek betetzen direla frogatuta geratuko dela dokumentatu.

**es** planificar la gestión de la calidad

**fr** planifier la gestion de la qualité

**en** plan quality management

232

**kalitatearen kudeaketa-sistema**

Kalitatearen kudeaketa-plana inplementatzeko behar diren politikak, prozesuak, prozedurak eta baliabideak egituratzen dituen antolaketa-esparrua.

**es** sistema de gestión de calidad

**fr** système de gestion de la qualité

**en** quality management system

**kausa-efektu diagrama**

Ik. arrain-hezur diagrama

233

**kontrol-diagrama**

Prozesu bateko datuak denboran zehar zehaztuta eta ezarritako kontrol-mugekin konparatuta adierazten dituen irudikapen grafikoa. Marra bat izan ohi du erdian, zehaztutako balioek kontrol-mugaren batekiko joera bereziren bat erakusten duten detektatzen laguntzeko.

**es** diagrama de control

**fr** diagramme de contrôle

**en** control chart

234

**kontrol-mugak**

Datuen desbideratzea islatzen duen kontrol-diagrama batean, datuen banaketa normala adierazten duen erdiko edo batez besteko lerroaren bi aldeetan dauden hiru desbiderapen estandarrez osatutako eremua.

**es** límites de control

**fr** seuils de contrôle

**en** control limits

235

**laginketa estatistikoa**

Intereseko populazio baten zati bat hautatu eta hura ikuskatzeko mekanismoa.

**es** muestreo estadístico

**fr** échantillonnage statistique

**en** statistical sampling

236

**matrize-diagrama**

Kalitatea kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna, matrizean sortutako antolaketa-egituraren barruan datuak aztertzeke erabiltzen dena. Matrizea osatzen duten errenkaden eta zutabeen artean dauden faktore, kausa eta helburuen arteko erlazioen sendotasuna irudikatzea da bere xedea.

**es** diagrama matricial

**fr** diagramme matriciel

**en** matrix diagram

237

**proba eta ebaluazioko dokumentuak**

Produktuaren kalitatea ebaluatzeko dokumentuak; bertan zehazten dira produktuak kalitatea kudeatzeko planean ezarritako kalitate-helburuak betetzen dituen zehazteko egin diren jarduerak

**es** documentos de prueba y evaluación

**fr** document d'évaluation et de test

**en** test and evaluation documents

238

**proiektuko baliabideen kudeaketa**

Proiektua arrakastaz amaitzeko behar diren baliabideak identifikatzeko, eskuratzeko eta kudeatzeko prozesuen multzoa.

**es** gestión de los recursos del proyecto

**fr** gestion des ressources du projet

**en** project resource management

239

**zehaztapen-mugak**

Kontrol-diagrama batean trazatutako erdiko edo batez besteko lerroaren bi aldeetan dagoen eremua, bezeroaren eskakizunak mugatzen dituena. Eremu hau kontrol-mugek definitutako eremua baino handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

**es** límites de las especificaciones

**fr** limites de spécifications

**en** specification limits

240

**zehaztasun**

Kalitatea kudeatzeko sisteman, neurketa baten zuzentasunaren ebaluazioa.

**es** exactitud

**fr** exactitude

**en** accuracy

## 7. KRONOGRAMA

241

### **amaiera-data**

Kronogramako jarduera baten amaierarekin lotutako data edo unea.

**es** fecha de finalización

**fr** date de fin

**en** finish date

242

### **amaiera-data hurbilen**

Bide kritikoaren metodoan, kronogramako jarduera batean osatu gabe dauden zatiak amai daitezkeen datarik edo unerik hurbilena. Hori ebazteko, kronogramaren sarearen logika, datari buruzko datuak eta kronogramaren edozein muga erabiltzen dira oinarri gisa.

**es** fecha de finalización temprana; EF

**fr** date de fin au plus tôt

**en** early finish date; EF

243

### **amaiera-data urrunen**

Bide kritikoaren metodoan, kronogramako jarduera batean osatu gabe dauden zatiak amai daitezkeen datarik edo unerik urrunena. Hori ebazteko, kronogramaren sarearen logika, proiektua amaitzeko data eta kronogramaren edozein muga erabiltzen dira oinarri gisa.

**es** fecha de finalización tardía; LF

**fr** date de fin au plus tard

**en** late finish date; LF

244

### **amaitu amaitzeko**

Erlazio logiko mota; haren arabera, ondorengo jarduera bat ezin da amaitu aurreko jarduera bat amaitu arte.

**es** final a final; FF

**fr** liaison fin-fin; FF

**en** finish-to-finish; FF

245

### **amaitu hasteko**

Erlazio logiko mota; haren arabera, ondorengo jarduera bat ezin da hasi aurreko jarduera bat amaitu arte.

**es** final a inicio; FS

**fr** liaison fin-début; FD

**en** finish-to-start; FS

246

### **analogiazko zenbatespen**

Jarduera edo proiektu baten iraupena edo kostua zenbatesteko teknika, antzeko jarduera edo proiektu baten datu historikoak erabiltzen dituen.

**es** estimación análoga

**fr** estimation par analogie

**en** analogous estimating

### **AON**

Ik. nodoko jarduera

247

### **atzeranzko bide**

Kronogramako jarduera guztietan osatu gabe dauden zatien hasiera-data urrunena eta amaiera-data urrunena kalkulatzeko metodoa. Kronogramaren sareko logikan atzerantz joz zehazten da, proiektua amaitzeko datatik abiatuz.

**es** recorrido hacia atrás

**fr** calcul au plus tard

**en** backward pass

248

### **atzerapen**

Ondorengo jarduera bat aurreko jarduera batekiko atzeratuko den denbora-tartea.

**es** retraso

**fr** retard

**en** lag

249

### **aurreranzko bide**

Kronogramako jarduera guztietan osatu gabe dauden zatien hasiera-data hurbilena eta amaiera-data hurbilena kalkulatzeko metodoa. Kronogramaren sareko logikan aurrerantz joz zehazten da, proiektua hasteko datatik edo une jakin batetik abiatuz.

**es** recorrido hacia delante

**fr** calcul au plus tôt

**en** forward pass

250

**aurrerapen**

Ondorengo jarduera batek aurreko jarduera bati aurre har diezaiokeen denbora-bitartea.

- es** adelanto
- fr** avance
- en** lead

251

**aurretiko jarduera**

Kronograma batean, ikuspuntu logikotik beste jarduera baten aurretik dagoen jarduera.

- es** actividad predecesora
- fr** activité prédécesseur; activité antécédente
- en** predecessor activity

252

**barra-diagrama**

Kronogramari buruzko informazioaren irudikapen grafikoa, barrak erabiltzen dituen. Ohiko barra-diagraman, kronogramaren jarduerak edo lanen organigramaren osagaiak goitik behera zerrendatzen dira diagramaren ezker aldean, datuak goiko aldean aurkezten dira, eta jardueren iraupena barra horizontalen bidez irudikatzen da, dataren arabera.

- es** diagrama de barras
- fr** graphique a barres
- en** bar chart

253

**bide kritiko**

Proiektuaren iraupena zehazten duen kronogramako jardueren sekuentzia. Normalean, proiekturako biderik luzeena da, eta iraupen laburrena adierazten du.

- es** ruta crítica
- fr** chemin critique
- en** critical path

254

**bide kritikoko jarduera**

Proiektuaren kronograma baten bide kritikoa dagoen edozein jarduera.

- es** actividad de la ruta crítica
- fr** activité critique
- en** critical path activity

255

**bide kritikoko metodo**

Proiektuaren gutxieneko iraupena zenbatesteko eta kronogramaren barruko bide logikoen programazioan erabiliko den malgutasun-maila zehazteko erabilitako metodoa.

- es** método de la ruta crítica; CPM
- fr** méthode du chemin critique
- en** critical path method; CPM

256

**bideen dibergentzia**

Kronogramako jarduera batek ondorengo jarduera bat baino gehiago dituenean sortzen den erlazioa.

- es** divergencia de rutas
- fr** divergence des chemins
- en** path divergence

257

**bideen konbergentzia**

Kronogramako jarduera batek aurreko jarduera bat baino gehiago dituenean sortzen den erlazioa.

- es** convergencia de rutas
- fr** convergence des chemins
- en** path convergence

258

**crashing**

Baliabideak gehituz kronogramaren iraupena ahalik eta kostu-handitze txikienarekin laburtzeko erabiltzen den teknika.

- es** intensificación
- fr** compression des délais
- en** crashing

259

**data inposatu**

Kronogramako jarduera bati ezarritako data finkoa.

- es** fecha impuesta
- fr** date imposée
- en** imposed date

260

**datu-data**

Proiektuaren egoera bat erregistratzen den data edo unea.

- es** fecha de corte
- fr** date des données
- en** data date

261

**datuak irudikatzeneko teknikak**

Datuak eta informazioa irudikatuta aurkezteko erabiltzen diren irudikapen grafikoak edo antzeko metodoak.

- es** técnicas de representación de datos
- fr** techniques de représentation des données
- en** data representation techniques

262

**diagramazio-teknikak**

Informazioa aurkezteko metodoa, lotura logikoak irudikatuta eskaintzen dituen informazio hori hobeto ulertzeko.

- es** técnicas de diagramación
- fr** techniques de représentation en graphique
- en** diagramming techniques

263

**erlazio logiko**

Bi jardueraren arteko mendekotasuna, edo jarduera baten eta mugarri baten artekoa.

- es** relación lógica
- fr** lien logique
- en** logical relationship

264

**esfortzu**

Kronogramako jarduera bat edo lanen organigramako osagai bat amaitzeko behar diren lan-unitateen kopurua. Oro har, laneko ordu, egun edo astetan adierazten da.

- es** esfuerzo
- fr** effort
- en** effort

265

**esfortzu diskretu**

Planifikatu eta neurtu daitekeen jarduera, irteera espezifikoa bat sortzen duena.

- es** esfuerzo discreto
- fr** effort unitaire
- en** discrete effort

266

**esfortzu-maila**

Azken produkturik sortzen ez duen jarduera, denbora igaro ahala neurtzen dena.

- es** nivel de esfuerzo; LOE
- fr** niveau d'effort
- en** level of effort; LOE

267

**«eta zer, baldin eta?» egoeren analisi**

Gerta daitezkeen egoerak ebaluatzen dituen prozesua; horren bitartez, egoera horiek

proiektuaren helburuetan izango duten eragina aurreikusiko da.

- es** análisis de escenarios: "¿qué pasa si?"
- fr** analyse par scénario
- en** what-if scenario analysis

268

**fasea itxi**

Fase bateko jarduera guztiak amaitu.

- es** cerrar la fase
- fr** clore la phase
- en** close phase

269

**Gantt-en diagrama**

Kronogramaren informazioa duen barra-diagrama mota. Jarduerak ardatz bertikalean zerrendatzen dira, datak ardatz horizontalean erakusten dira, eta jardueren iraupenak barra horizontal gisa agertzen dira, hasiera- eta amaiera-daten arabera kokatuta.

- es** diagrama de Gantt
- fr** diagramme de Gantt
- en** Gantt chart

270

**goranzko zenbatespen**

Proiektuaren iraupena edo kostua kalkulatzeko teknika, lanen organigramako beheko mailako osagaien zenbatespenak batzen dituen.

- es** estimación ascendente
- fr** estimation ascendante
- en** bottom-up estimating

271

**hasi amaitzeko**

Erlazio logiko mota; haren arabera, ondorengo jarduera bat ezin da amaitu aurreko jarduera bat hasi arte.

- es** inicio a final; SF
- fr** liaison début-fin; DF
- en** start-to-finish; SF

272

**hasi hasteko**

Erlazio logiko mota; haren arabera, ondorengo jarduera bat ezin da hasi aurreko jarduera bat hasi arte.

- es** inicio a inicio; SS
- fr** liaison début-début; DO
- en** start-to-start; SS

273

**hasiera-data**

Kronogramako jarduera baten hasierarekin lotutako data edo unea.

**es** fecha de inicio

**fr** date de début

**en** start date

274

**hasiera-data hurbilen**

Bide kritikoaren metodoan, kronogramako jarduera batean osatu gabe dauden zatiak has daitezkeen datarik edo unerik hurbilena. Hori ebazteko, kronogramaren sarearen logika, datari buruzko datuak eta kronogramaren edozein muga erabiltzen dira oinarri gisa.

**es** fecha de inicio temprana; ES

**fr** date de début au plus tôt

**en** early start date; ES

275

**hasiera-data urrunen**

Bide kritikoaren metodoan, kronogramako jarduera batean osatu gabe dauden zatiak has daitezkeen datarik edo unerik urrunena. Hori ebazteko, kronogramaren sarearen logika, proiektua amaitzeko data eta kronogramaren edozein muga erabiltzen dira oinarri gisa.

**es** fecha de inicio tardía; LS

**fr** date de début au plus tard

**en** late start date; LS

276

**hiru puntuko zenbatespen**

Proiektuaren kostua edo iraupena zenbatesteko erabiltzen den teknika, zenbatespen baikorren, ezkorren eta probableenen batezbestekoa aplikatzen duena. Banakako jardueren zenbatespenen aurrean ziurgabetasuna dagoenean erabiltzen da.

**es** estimación por tres valores

**fr** estimation a trois points

**en** three-point estimating

277

**iraupen**

Jarduera bat edo lanen organigramako osagai bat osatzeko behar diren lanaldiak. Ordutan, egunetan edo astetan adierazten da.

**es** duración

**fr** durée

**en** duration

278

**iraupen erreal**

Kronogramako jardueraren hasiera-data errealaren eta kronogramaren datuetako dataren artean (kronogramaren jarduera garatzen ari bada)

edo amaiera-data errealaren artean (kronogramaren jarduera amaitu bada) dagoen denbora, egutegiko unitateetan adierazia

**es** duración real

**fr** durée réelle

**en** actual duration

279

**jarduera-zerrenda**

Kronogramako jardueren taula dokumentatua. Jardueraren azalpena, identifikatzailea eta lanaren irismenaren deskribapen nahiko zehatza erakusten ditu, proiektu-taldeko kideek egin behar duten lana zein den ondo uler dezaten.

**es** lista de actividades

**fr** liste d'activités

**en** activity list

280

**jarduerak sekuentziatu**

Proiektuko jardueren arteko erlazioak identifikatu eta dokumentatu.

**es** secuenciar las actividades

**fr** organiser les activités en séquence

**en** sequence activities

281

**jardueraren iraupen**

Kronogramako jarduera baten hasieraren eta amaieraren arteko denbora, egutegiko unitateetan adierazia.

**es** duración de la actividad

**fr** durée de l'activité

**en** activity duration

282

**jardueraren iraupena zenbatetsi**

Zenbatetsitako baliabideekin jarduera bat osatzeko beharko diren laneko denbora-unitateen zenbatespena egin.

**es** estimar la duración de las actividades

**fr** estimer la durée des activités

**en** estimate activity durations

283

**jardueraren iraupenaren zenbatespen**

Jarduera bat osatzeko beharko diren denbora-unitateen ebaluazio kuantitatiboa.

**es** estimación de la duración de la actividad

**fr** estimations de la durée d'une activité

**en** activity duration estimates

284

**kanpo-mendekotasun**

Proiektuko jardueren eta proiektukoak ez direnen arteko erlazioa.

**es** dependencia externa

**fr** dépendances externes

**en** external dependency

285

**kronograma garatu**

Jardueren sekuentziak, iraupenak, baliabideen eskakizunak eta kronogramaren mugak aztertu eta proiektuaren kronogramaren eredua sortu, proiektua gauzatzeko, monitorizatzeko eta kontrolatzeko.

**es** desarrollar el cronograma

**fr** élaborer l'échéancier

**en** develop schedule

286

**kronograma kontrolatu**

Proiektuaren egoera monitorizatuz proiektuaren kronograma eguneratu, eta kronogramaren oinarri-lerroko aldaketak kudeatu.

**es** controlar el cronograma

**fr** maîtriser l'échéancier

**en** control schedule

287

**kronograma nagusi**

Proiektu-kronograma laburtua, entregagai nagusiak, lanen organigramako osagaiak eta kronogramaren funtsezko mugarriak identifikatzen dituena.

**es** cronograma maestro

**fr** échéancier directeur

**en** master schedule

288

**kronograma-datuak**

Kronograma deskribatzeko eta kontrolatzeko informazioaren multzoa.

**es** datos del cronograma

**fr** données de l'échéancier

**en** schedule data

289

**kronograma-performantziaren indize**

Kronogramaren efizientzia-neurria; irabazitako balioaren eta planifikatutako balioaren arteko arrazoi gisa adierazia.

**es** índice de desempeño del cronograma; SPI

**fr** indice de performance des délais

**en** schedule performance index; SPI

290

**kronograma-sareko analisi**

Proiektu-kronogramako jardueretan osatu gabe dauden zatien hasiera-data hurbilenak eta urrunenak eta amaiera-data hurbilenak eta urrunenak identifikatzeko teknika.

**es** análisis de la red del cronograma

**fr** analyse du diagramme de réseau

**en** schedule network analysis

291

**kronogramako desbideratze**

Kronogramako performantziaren neurria, balio irabaziaren eta balio planifikatuaren arteko aldea adierazten duena.

**es** variación del cronograma; SV

**fr** écart de délais

**en** schedule variance; SV

292

**kronogramako pronostiko**

Proiektuaren etorkizuneko baldintzak eta gertakariak zenbatestea edo aurreikustea, kronograma kalkulatu den unean eskura dauden informazioan eta ezagutzan oinarrituta.

**es** pronóstico de cronograma

**fr** prévisions de l'échéancier

**en** schedule forecast

293

**kronogramaren konpresio**

Proiektuaren irismena murriztu gabe kronogramaren iraupena laburtzeko erabiltzen den teknika.

**es** compresión del cronograma

**fr** compression de l'échéancier

**en** schedule compression

294

**kronogramaren kudeaketa planifikatu**

Proiektuaren kronograma planifikatzeko, garatzeko, kudeatzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko politikak, prozedurak eta dokumentazioa ezarri.

**es** planificar la gestión del cronograma

**fr** planifier la gestion de l'échéancier

**en** plan schedule management

295

**kronogramaren oinarri-lerro**

Kronograma-eredu baten bertsio onartua. Eraitza errealekin konparatzeko oinarri gisa erabiltzen da, eta aldaketen kontroleko prozedura formalen bidez soilik alda daiteke.

- es** línea base del cronograma
- fr** référence de base de l'échéancier
- en** schedule baseline

296

**laburpen-jarduera**

Kronograman elkarrekin erlazioa duten jardueren multzoa; jarduera bakar gisa metatu eta erakusten dira.

- es** actividad resumen
- fr** consolidation d'activités
- en** summary activity

297

**lehentasun-erlazio**

Lehentasunezko diagrama-metodoan erabilitako mendekotasun logikoa.

- es** relación de precedencia
- fr** relation d'antériorité
- en** precedence relationship

298

**lehentasunezko diagrama-metodo**

Programazio-eredu jakin bat eraikitzeke erabiltzen den teknika. Eredu horren arabera, jarduerak nodoen bidez irudikatzen dira eta grafikoki lotzen dira erlazio logiko baten edo gehiagoren bidez, haiek gauzatzeko erabiliko den sekuentzia adierazteko.

- es** método de diagramación por precedencia; PDM
- fr** méthode des antécédents
- en** precedence diagramming method; PDM

299

**marjina libre**

Ondorengo jarduera baten hasiera-data hurbilena atzeratu gabe edo kronogramako ezein muga urratu gabe, kronogramako jarduera bat atzeratu daitekeen gehieneko denbora.

- es** holgura libre; margen libre
- fr** marge libre
- en** free float

300

**marjina total**

Proiektua amaitzeko data atzeratu gabe edo kronogramako ezein muga urratu gabe, kronogramako jarduera bat atzeratu edo luzatu daitekeen gehieneko denbora.

- es** holgura total; margen total
- fr** marge totale
- en** total float

301

**mendekotasun**

Bi jardueraren arteko erlazioa, edo jarduera baten eta mugarri baten artekoa.

- es** dependencia
- fr** dépendance
- en** dependency

302

**mendekotasun diskrezional**

Praktika egokien ezagutzan oinarrituriko erlazio edo mendekotasuna, aplikazio bereziko arlo batean edo sekuentzia espezifiko bat eskatzen duen proiektuaren alderdi batean ezarria.

- es** dependencia discrecional
- fr** dépendance optionnelle
- en** discretionary dependency

303

**Monte Carlo simulazio**

Eredu informatiko batean iterazioak eginez gauzatzen den analisi-teknika; iterazio bakoitzaren sarrerako balioak ausaz hautatzen dira sarrerakodatuetatik abiatuz, eta irteerak sortzen dira proiektuaren balizko emaitzen bitartea irudikatzeke.

- es** simulación Monte Carlo
- fr** simulation de Monte Carlo
- en** Monte Carlo simulation

304

**mugarrien kronograma**

Mugarriak eta mugarri horientzat aurreikusitako datak irudikatzen dituen kronograma-mota.

- es** cronograma de hitos
- fr** échancier a jalons
- en** milestone schedule

305

**nahitaezko mendekotasun**

Kontratu bidez ezarritako erlazioa, edo lanaren izaerak berez eskatzen duena.

- es** dependencia obligatoria
- fr** dépendance obligatoire
- en** mandatory dependency

306

**nodo**

Proiektu-kronogramaren sare-diagrama batean, mendekotasun-lerroak konektatzen diren puntua.

- es** nodo
- fr** noeud
- en** node

307

**nodoko jarduera**

Sin. AON

Lehentasunezko diagrama-metodoan nodo gisa irudikatutako jarduera.

- es** actividad en el nodo; AON
- fr** activité sur noeud
- en** activity-on-node; AON

308

**ondorengo jarduera**

Kronograma batean, ikuspuntu logikotik beste jarduera baten ondoren dagoen jarduera.

- es** actividad sucesora
- fr** activité successeur
- en** successor activity

309

**programazio-eredu**

Proiektuaren jarduerak gauzatzeko planaren irudikapena, barnean hartzen dituen iraupenak, mendekotasunak eta plangintzako gainerako informazioa. Gero proiektuaren kronograma sortzeko erabiliko da, plangintzako beste objektu batzuekin batera.

- es** modelo de programación
- fr** modèle d'échéancier
- en** schedule model

310

**proiektu-kronograma**

Proiektu bateko jarduera guztiak irudikatzen dituen zerrenda egituratua, jarduera horien hasiera-eta amaiera-data aurreikusiak, mugarriak eta baliabideak zehazten dituen

- es** cronograma del proyecto
- fr** échéancier du projet
- en** project schedule

311

**proiektu-kronogramaren kudeaketa**

Proiektua epearen barruan amaituko dela bideratzeko behar diren kudeaketa-prozesuen multzoa.

- es** gestión del cronograma del proyecto
- fr** gestion de l'échéancier du projet
- en** project schedule management

312

**proiektu-kronogramaren sare-diagrama**

Proiektuaren kronogramako jardueren artean dauden erlazio logikoen irudikapen grafikoa.

- es** diagrama de red del cronograma del proyecto
- fr** diagramme de réseau du projet
- en** project schedule network diagram

313

**proiektua itxi**

Proiektu bateko jarduera guztiak amaitu.

- es** cerrar el proyecto
- fr** clore le projet
- en** close project

314

**proiektuaren egutegi**

Kronogramako jardueretarako erabilgarri dauden lanegunak eta lan-txandak zehazten dituen egutegia.

- es** calendario del proyecto
- fr** calendrier du projet
- en** project calendar

315

**proiektuaren kalitatearen kudeaketa**

Erakundearen kalitate-politika txertatzeko prozesuen multzoa. Kontuan hartzen ditu proiektuaren eta produktuaren kalitate-eskakizunen planifikazioa, kudeaketa eta kontrola, eta xedea izango da, betiere, alderdi inplikatuak nahiak eta beharrak asetzeari.

- es** gestión de la calidad del proyecto
- fr** gestion de la qualité du projet
- en** project quality management

316

**sare-bide**

Proiektu-kronogramaren sare-diagrama batean, erlazio logikoekin konektatutako jardueren segida jarraitua.

- es** ruta de red
- fr** chemin du réseau
- en** network path

317

**sare-logika**

Proiektu-kronogramaren sare-diagrama bateko jardueren arteko mendekotasun guztien multzoa.

**es** lógica de la red

**fr** logique du réseau

**en** network logic

318

**simulazio**

Zehaztutako ziurgabetasunak helburuetan izan dezaketen eragina ebaluatzeko, proiektu-eredu bat erabiltzen duen teknika.

**es** simulación

**fr** simulation

**en** simulation

319

**teilakatze**

Kronogramaren konpresio-teknika; normalean sekuentzian egiten diren jarduera edo fase batzuk paraleloan egiten dira, iraupenaren zati batean behintzat.

**es** ejecución rápida

**fr** mise en parallèle

**en** fast tracking

320

**uhinkako plangintza**

Plangintza-teknika iteratiboa; epe laburrean egin beharreko lana xehetasunez planifikatzen da, eta etorkizuneko lana, berriz, goragoko maila batean planifikatzen da.

**es** planificación gradual

**fr** planification en vagues

**en** rolling wave planning

321

**zenbatespen**

Aldagai baten zenbateko edo emaitza probabilearen ebaluazio kuantitatiboa.

**es** estimación

**fr** estimation

**en** estimate

322

**zenbatespen independente**

Zenbatespenean hirugarren batek parte hartzen duen prozesua; informazioa lortu eta aztertzen du, kostuaren aurreikuspena, kronograma edo beste elementu batzuk zehazteko.

**es** estimación independiente

**fr** estimation indépendante

**en** independent estimating

323

**zenbatespen parametrik**

Proiektuaren kostua edo iraupena kalkulatzeko algoritmo bat erabiltzen duen zenbatespen-teknika, datu historikoetan eta proiektuaren parametroetan oinarritzen dena.

**es** estimación paramétrica

**fr** estimation paramétrique

**en** parametric estimating

## 8. KOMUNIKAZIOAK

324

### **komunikazio-eredu**

Proiektuaren komunikazio-prozesua nola gauzatuko den irudikatzeko erabilitako deskribapena edo eskema.

- es** modelo de comunicación
- fr** modèle de communication
- en** communication model

325

### **komunikazio-eskakizunen analisi**

Proiektuko alderdi inplikatuaren informazio-beharrak zehazteko teknika analitikoa. Elkarriketak, aurreko proiektuetatik ikasitakoen azterketak eta bestelako prozedurak erabiltzen dira horretarako.

- es** análisis de requisitos de comunicación
- fr** analyse des exigences en communication
- en** communication requirements analysis

326

### **komunikazio-estiloen ebaluazio**

Planifikatutako komunikazio-jardueretan alderdi inplikatuak komunikaziorako gehien apreziatutako metodo, formatu eta edukiak identifikatzeko teknika.

- es** evaluación de estilos de comunicación
- fr** évaluation des styles de communication
- en** communication styles assessment

327

### **komunikazio-metodoak**

Proiektuko alderdi inplikatuaren artean informazioa transferitzeko erabilitako prozedura, teknika edo prozesu sistematikoa.

- es** métodos de comunicación
- fr** méthodes de communication
- en** communication methods

328

### **komunikazio-teknologia**

Alderdi inplikatuaren artean informazioa transferitzeko erabiltzen diren tresna, sistema, programa informatiko eta abarren multzoa.

- es** tecnología de la comunicación
- fr** technologie de communication
- en** communication technology

329

### **komunikazioak kudeatu**

Proiektuari buruzko informazioa planifikatzeko, biltzeko, sortzeko, banatzeko, gordetzeko, berreskuratzeke, kudeatzeko, kontrolatzeko eta eskaintzeko moduak egokiak direla bermatu.

- es** gestionar las comunicaciones
- fr** gérer les communications
- en** manage communications

330

### **komunikazioak monitorizatu**

Proiektuaren inguruko informazio-beharrak eta alderdi inplikatuaren asetzen direla ziurtatzea.

- es** monitorear las comunicaciones
- fr** maîtriser les communications
- en** monitor communications

331

### **komunikazioen kudeaketa planifikatu**

Proiektuaren komunikazio-jardueretarako ikuspegi eta plan egokiak garatu; horretarako, oinarri gisa hartuko dira alderdi inplikatuaren informazio-beharrak, erakundearen aktibo erabilgarriak eta proiektuaren beharrak.

- es** planificar la gestión de las comunicaciones
- fr** planifier la gestion des communications
- en** plan communications management

332

### **pertsona- eta talde-arteko gaitasunak**

Taldekieekin eta beste alderdi inplikatu batzuekin interakzioan eta lider gisa modu eraginkorrean aritzeko erabiltzen diren gaitasunak.

- es** habilidades interpersonales y de equipo
- fr** compétences interpersonnelles et d'équipe
- en** interpersonal and team skills

333

### **pertsona-arteko gaitasunak**

Beste pertsona batzuekin harremanak ezartzeko eta mantentzeko erabiltzen diren gaitasunak.

- es** habilidades interpersonales
- fr** compétences interpersonnelles
- en** interpersonal skills

334

**proiektuko komunikazioen kudeaketa**

Proiektuari buruzko informazioa planifikatzeko, biltzeko, sortzeko, banatzeko, gordetzeko, berreskuratze, kudeatzeko, kontrolatzeko eta eskaintzeko moduak egokiak direla bermatzeko prozesuen multzoa.

**es** gestión de las comunicaciones del proyecto

**fr** gestion des communications du projet

**en** project communications management

## 9. HORNITZEAK

335

### akordio

Proiektu baten hasierako asmoak zehazten dituen edozein dokumentu edo komunikazio. Izan daiteke kontratua, akordio-gutuna, ahozko akordioa, posta elektronikoa eta abar.

**es** acuerdo

**fr** accord

**en** agreement

336

### aurrekontu-eskaera

Produktu edo zerbitzuen balizko saltzaileei prezio-aurrekontuak eskatzeko erabiltzen den hornitze-dokumentu mota.

**es** solicitud de cotización; RFQ

**fr** demande de devis

